

# Biztanleriak Hirugarren Sektoreari buruz duen pertzepzioa

Bizkaiko Hirugarren Sektorearen  
Behatokiaren Taldea

bizkaiko hirugarren  
sektorearen behatokia

2012ko abendua



# Biztanleriak Hirugarren Sektoreari buruz duen pertzepzioa

Bizkaiko Hirugarren Sektorearen Behatokiaren Taldea

**2012ko abendua**

bizkaiko hirugarren  
sektorearen behatokia

observatorio del  
tercer sector de bizkaia



Egileak: Ainara Canto, Iskandar Cabezas, Zuriñe Romeo, Rafael López-Arostegui.

Itzultzailea: Tradebi

Diseinu grafikoa: ST3 Elkartea

Behatokiaren webgunean – [www.3sbizkaia.net](http://www.3sbizkaia.net) – dokumentu hau eta Behatokiaren gainerako argitalpenak eskura daitezke eta dohainik deskargatu.

Haien bidez, Hirugarren Sektorearen hobekuntzari lagundu nahi diogu; horregatik, eskertzen dugu dokumentazioa ahalik eta gehien hedatzea eta haien banketa, kopia eta birbanaketa baimentzen ditugu, betiere irabazi-asmorik gabe egiten bada eta egilea nor den aitortzen bada.

## AURKIBIDEA

1. Aurkezpena .....	5
2. Testuinguruan jartzea.....	6
3. Helburuak.....	10
4. Metodologia .....	11
5. Biztanleriak Hirugarren Sektoreari buruz duen mapa mentala: Definizioa eta ezagutza .....	12
6. Biztanleriak Hirugarren Sektoreari buruz duen pertzepzioa eta iritziak, ezaugarri definitzaileei (Identitatea) dagokienez .....	26
7. Hirugarren Sektoreko erakundeen lanaren eta ekarpen sozialaren balorazioa.....	35
8. Hirugarren Sektoreko erakundeen etorkizuna .....	42
9. Ondorioak .....	45
10. Bibliografia.....	49
11. Eranskinak.....	50



# 1. AURKEZPENA

Bizkaiko Hirugarren Sektorearen Behatokia hirugarren sektorean espezializatuta dago eta honako alor hauek jorratzen ditu: informazioa eta dokumentazioa, ikerketa aplikatua eta sustapena; irabazi-asmorik gabekoa eta independentea da, eta hirugarren sektorea sustatzea, berrikuntza sustatzea eta Bizkaiko erakundeen kudeaketa eta esku-hartzea hobetzea du helburu.

Analisiaren gunea Bizkaiko biztanleriak Hirugarren Sektoreari buruz duen ikuspegian jartzen duen “3S bilduma – Ikerketa” bildumako aplikazio berri honek Bizkaiko Hirugarren Sektorearen errealitateari buruzko informazio esanguratsua eskaintzen jarraitu nahi du, Hirugarren Sektoreko erakunde eta sareei eta horretan interesatutako beste eragile batzuei, eta kasu honetan, horren ezagutzari eta aitortpenari buruz, eragile soziala den aldetik.

Bizkaiko biztanleriak sektoreari dagokionez duen pertzepzioari buruzko informazio fidagarria edukitzea funtsezkoa da ekarpen sozialaren ikusgarritasunarekin lotutako erronkak lortzeko estrategia egokiak finkatzeko, irudi publikoa finkatzeko, sinesgarritasuna areagotzeko eta erakundeek jarduteko, oinarri soziala hedatzeko eta kapital soziala areagotzeko beharrezkoa duten konfiantza eta legitimitatea etengabe eraikitzeko.

Illo horretatik, lan honek Hirugarren Sektorearen eta gizartearen hurbilketa bultza dezake eta hala egin nahi du eta, azken batean, horren aitorten sozial handiagoa bultzatu nahi du, sektoreari eta erakundeei, oro har, herritarrekiko komunikazio handiagoa eta hobea finkatzen laguntzeko zenbait alderdi ere identifikatuta.

Orain arte ez zen Bizkaiko biztanleriak Hirugarren Sektoreari buruz duen iritzia aztertzea xede zuen ikerketarik egin, ezta EAEko iritzia aztertzeko ere, hortaz, errealitatera doitutako ondorioak eta pistak atera ahal izango dira.<sup>1</sup>

Ikerketa honen garrantzia estatistikoki adierazgarria den Bizkaiko biztanleriaren laginari egindako zuzeneko kontsultan oinarrituta egotean datza, telefono bidez egindako galdeketa bitartez, argitaratutako beste azterketa batzuekin alderatutako erreferentziak ere jasota.

---

1 Lan honen edukiarekin lotutako eta Araban egindako alde aurreko bi azterketa identifikatu dira eta horiei aurrerago egingo diegu erreferentzia:

GASTEIZEKO UDALA eta ERDU AGENTZIA (2003). *Arabako elkarteen mugimendua hainbat ikuspegitatik*.

SIIS. *Herritarren pertzepzioa irabazi-asmorik gabeko erakundeekiko Araban*. Zerbitzuan, 40. zk. (2006), 93-105. or.

## 2. TESTUINGURUAN JARTZEA

### 2.1. Zer ulertzen dugu Hirugarren Sektorearekin eta gaur egun zein erronkei egin behar die aurre?

Hirugarren Sektorea sozietate zibilaren adierazpen nagusia eta partaidetza soziala eta elkartasuna egitura-zeko oinarrizko tresna da, kohesio soziala, herritartasuna gauzatzea eta kalitate demokratikoa bultzatuz.

Beste sektore sozial batzuen antzera (irabazi asmoko sektore publikoa eta pribatua), sektore heterogeneo eta dinamikoa da eta horregatik eta beste arrazoi batzuegatik, ez dago horren muga eta dimentsioei buruzko adostasun zientifikorik, ezta metodologikorik ere. Zalantzarik gabe, jasotzen dituen izendapen ugariak (irabazi asmorik gabeko erakundeak, gobernuz kanpoko erakundeak, borondatezko gizarte-erakundeak eta abar) eta horren kontzeptualizaziorako eta analisirako hartutako ikuspegi aniztasunak (nagusiki, gizarte-ekonomiaren ikuspegia eta irabazi asmorik gabeko ikuspegia) fenomenoaren aberastasuna eta ikusteko modu desberdinak aditzera ematen dituzte.

Bizkaiko Hirugarren Sektorearen Behatokitik honako hauez osatuta dagoena definitzen dugu Hirugarren Sektoretzat: *kudeatzeko autonomia eta independentzia duten eta sozietate zibilean aktibo dauden ekimenen multzoa, irabazi asmorik gabekoa eta, oro har, borondatezkoa, jarduera zentzu zabalean gizarte mailako esku-hartzera bideratzen duena eta askotariko eremuetatik gizarte-ingurunea hobekuntza xede duela esan nahi du horrek.*<sup>2</sup>

Finkatutako sektorea den arren, Bizkaiko Hirugarren Sektorea alde zuzeneko lanetan, *Bizkaiko Hirugarren Sektorearen Liburu Zuria* lanean kasu, deskribatutako hainbat erronkei aurre egin beharrean dago gaur egun.<sup>3</sup>

Honako hauekin zerikusia duten erronkak: *erakundeetako egitura eta oinarri soziala* (egitura indartzea, oinarri sozialaren hedapena edo mantentzea, parte hartzeko modu berrien bilaketa eta abar), *pertsonak* (politikaren eta pertsonen kudeaketa-sistemen formalizazioa eta hobekuntza erakundeetako identitatearekin eta balioekin koherentzia, lan-baldintzen hobekuntza eta abar), *baliabide ekonomikoak eta finantzarioak* (horien eskuragarritasuna eta dibertsifikazioa), *erakundeetako kudeaketa-ereduak* (eredu, sistema eta tresnen garapena Hirugarren Sektoreko kudeaketa-esperezia sistematizatzearekin, beste sektore batzuetako erreferentzia baliagarrien txertaketa egokitua eta abar) edo *Hirugarren Sektorearen antolaketa* (lehen mailako erakundeen arteko koordinazioa eta lankidetzak, lehen mailako erakundeen antolaketaren hobekuntza bigarren eta hirugarren mailako erakunde eta sareekin eta abar).

Horrez gain, azpimarratu beharra dago *Hirugarren Sektoreak beste sektore eta eragile sozial batzuekin duen lotura areagotzek* duen garrantzia eta erakundeek egindako jardueren aitorpena: beste sektore eta eragile sozialekiko harremanak indartzea eta sistematizatzea, Hirugarren Sektorearen ekarpen soziala eta horren baliokidetasuna ikustea ahalbidetuko duten estrategiak garatzea eta eragile soziala den aldetik aurrerapenak.

*Gizarte Ekintzako GKE-en Plataformako Gizarte Ekintzako Hirugarren Sektoreko Plan Estrategikoak* ere<sup>4</sup> helburu estrategikoen artean jasotzen du Gizarte Ekintzako Hirugarren Sektorearen *erakuntza soziala* indartzea, besteak beste, *sektorearen irudi publikoa finkatzea eta sinesgarritasuna areagotzea* proposatuz, *oinarri soziala zabaltzea ahalbidetzeko*.

2 Bizkaiko Hirugarren Sektorearen Liburu Zuria egiteko ikerketa-proiektuaren orientazioan parte hartu zuten Hirugarren Sektoreko erakunde eta sareekin bere garaian adostutako definizioa da hau.

3 Canto, A.; López-Aróstegui, R. *Bizkaiko Hirugarren Sektoreko Liburu Zuria*. Bilbao: Bizkaiko Hirugarren Sektoreko Behatokia, 2010.

4 EKINTZA SOZIALEKO GKE-EN PLATAFORMA. *Ekintza sozialeko hirugarren sektorearen plan estrategikoa*. Madril: Ekintza Sozialeko GKE plataforma, 2006.

## 2.2. Zer genekien Hirugarren Sektoreko irudi sozialari buruz?

Ezagutzen al duzu Hirugarren Sektoreko gizartea? Zerekin identifikatzen duzu? Nola baloratzen duzu? Antolatutako multzo gisa jasotzen al da? Gizarteak ezagutzen al du erakundeen ekarpen ekonomiko eta sozialaren irismena? Horienganako konfiantzarik ba al du?

Adierazi dugun moduan, lan hau egin den arte ez genuen Bizkaiko biztanleriak Hirugarren Sektoreari buruz zuen pertzepzioari buruzko informaziorik galdera horiei erantzun ahal izateko.

Hala eta guztiz ere, beste lurralde-eremu batzuetan argitaratutako zenbait azterketek panorama orokorrari buruzko hainbat pista eman dituzte, ikerketa hau planteatzerakoan kontuan hartu dira eta alderaketaren bat egiteko aukera eskaini dute.<sup>5</sup> Hori horrela:

- 2005ean argitaratutako *Ekonomia Soziala Espainian*<sup>6</sup> txostenak dioenez, Espainiako biztanleriaren kontzientzia kolektiboan ez dago Hirugarren Sektoreari buruzko pertzepzio edo irudi garbirik eta **terminoa bera kontzeptuala** da -pertsone akademikoentzat, ikertzaileentzat eta administrazio publikoarentzat-, eta ez kontzeptu arrunta eta jendartean onartutakoa. Horrela, badirudi erakundeetako jardueraren irismenaren pertzepzioa sektorearen pertzepzioa baino hedatuago dagoela.

Espainiako gizarteak sektore publiko eta pribatuen bereizitako multzo gisa Hirugarren Sektorearen pertzepzio ahula duela ondorioztatzen du txosten horrek.

Gainera, **herritarren** gehiengo handiak **ez ditu erreferentziatzeko erakunde horiek jarduera-sektore bereko partaide gisa ikusten**. Hortaz, elkarrizketatutakoen erdiak baino zertxobait gehiagok (% 54) uste du erakundeek gutxi edo ezer ere ez dutela komunean.

Elementu komunak identifikatzen direnean, gizarte-ongizatearekin, gizarteko zerbitzuarekin eta komunitatearen laguntzarekin lotutakoak nabarmentzen dira, nagusiki gizarte-egoera ahuleneko pertsona eta kolektiboan laguntzarekin lotutakoak.

- Irabazi asmorik gabeko erakundeetako komunikazioari eta gardentasunari buruzko 2006ko beste azterketa bati jarraiki <sup>7</sup> **Espainiako biztanleriaren % 30ek erantzun hau eman du erakunderen baten izena emateko garaian: “ez du ezagutzen, ez daki edo ez du erantzun”**.

Era berean, 2003. urtean hiriko *elkarte-mugimenduari*<sup>8</sup> buruz Gasteizen egindako azterketak % 28,8an kokatu zuen erakunde jakin baten izena aipatzeko gai ez zen pertsonen ehunekoa. Azterketa horren arabera, adineko pertsonak eta ikasketa maila baxuena zutenak ziren erakunde gutxien ezagutzen zituzten pertsonak.

5 Nolanahi ere, alderaketa egiteko zailtasunek alderatzeko datuak arretaz hartzea eta balio orientagarria soilik ematera behartzen dute. Alderaketako zailtasun horiek nagusiki txosten desberdinak, helburu eta metodologia desberdinetakoak, erreferentziatuz hartzetik edo herritarrei egindako kontsultan oinarrituta, galderak ikerketakoekin beti bat ez etortzetik sortzen dira.

6 ONCE FUNDAZIOA. *Ekonomia Soziala Espainian*. 4. monografia – Bi azterketa soziologiko. (LÓPEZ PINTOR, Rafael. 1. kapitulua – Hirugarren Sektorearen pertzepzio soziala eta iritzi publikoa. Madrilgo Unibertsitate Autonomoa). 2005 Ikerketa horrek sindikatuak, IGEak edo alderdi politikoak jasotzen dituela kontuan hartzea beharrezkoa da.

7 HERRANZ DE LA CASA, Jose Mar'a (2006). Komunikazioa eta gardentasuna irabazi-asmorik gabeko erakundeetan.

8 GASTEIZEKO UDALA ETA ERDU AGENTZIA (2003). Arabako elkarten mugimendua hainbat ikuspegitatik.



2006. urtean argitaratutako *Gizarte-ekintzako irabazi asmorik gabeko erakundeei buruzko herritarren pertzepzioa Araban* azterketaren arabera<sup>9</sup>, Arabako biztanleriaren % 62k ez zuen gizarte-zerbitzuen arloan lan egiten zuen erakunde bakar baten izenik ezagutzen.<sup>10</sup>

- 2010. urtean argitaratutako *Horrela ikusten gaituzte; zer dakigu eta nola balioesten ditugu GGKEak?*<sup>11</sup> azterketatik ondorioztatzen da gehien ezagutzen diren garapenerako GKEak proiektu kopuru handienak, oinarri sozial handiena eta komunikazio-jarduera handiena dutenak direla.

Ilido beretik, 2001eko CISeko barometroaren datuen arabera<sup>12</sup> estatu mailan galdetutakoen % 94k zerbait entzuna zuen haurrak babesean hartzeko kanpainei buruz, % 67k 0,7aren aldeko kanpainei buruz eta % 57k Hirugarren Mundurako botiken fabrikazioari laguntzeko kanpainei buruz.

Hortaz, **badirudi zenbait erakunde eta jarduerak biztanleriarentzako ikusgarritasun handiagoa dutela eta ezagunagoak direla**. Badirudi hori hein batean erakundeek komunikatzeko ahalegina egitearen mende dagoela eta bereziki, komunikabideetan presentzia handiagoa duten kanpainak antolatzearen mende (komunikatzeko edozein ahaleginek ez luke emaitza bera izango), baita, neurri handian beste alderdi batzuen mende ere, hala nola erakundeen antzintasuna edo tamaina oinarri sozialari dagokionez, hainbat eremutan duten presentzia eta abar.

- Bestalde, CISeko barometroaren galdeketak bildutako informazioaren arabera, Espainiako gizarteak **GKE-en jarduerari eta lanari buruzko balorazio positiboa** egiten du.

Horri dagokionez, ezinbestekoa da konfiantza ere neurtu beharreko oso faktore garrantzitsua dela aintzat hartzea, erakundeen legitimitateari eutsi eta jardutea, oinarri soziala eta baliabideak hedatzea eta abar ahalbidetzen dielako.

Espanian, 2011ko CISen Barometroaren arabera<sup>13</sup> Espainiako biztanleriak erakundeengan duen konfiantza maila neurtzen duen **sinesgarritasunaren sailkapenean lehen postua betetzen dute GKE-ek**. Hala eta guztiz ere, azpimarratu beharra dago GKE-en batez besteko balorazioa ez dela 10etik 6 puntura iristen.

2007ko CISen Barometroan argitaratutako datuetatik konfiantza erakunde guztientzat ez dela berdina ondorioztatzen da, baloraziorik onena dutenak gizarte-laguntza eta esku-hartze sozialekoak, giza eskubideetakoak eta GGKEak izanik.

9 SIIS. Herritarren pertzepzioa gizarte ekintzako irabazi-asmorik gabeko erakundeekiko Araban. Zerbitzuan, 40. zk. (2006), 93-105. or..

10 Datu horiek interpretatzerakoan beharrezkoa da kontuan hartzea, besteak beste, Hirugarren Sektoreak lurralde jakin batean har dezakeen hedapena hainbat faktoreren mendekoa izango dela; faktore horien artean, alde aurreko ibilbidea eta Hirugarren Sektorearekiko sustapen eta lankidetzat mailako politika publikoak kasu.

11 ESPAINIAREN GARAPENERAKO GKE-EN KOORDINAKUNDEA. *Horrela ikusten gaituzte, zer dakigu eta nola baloratzen ditugu GGKEak?* Coordinadora argitalpenak. 2010.

12 CIS. Barómetro 2001. [http://www.cis.es/cis/opencm/ES/11\\_barometros/index.jsp](http://www.cis.es/cis/opencm/ES/11_barometros/index.jsp)

13 CIS. Barómetro 2011. [http://www.cis.es/cis/opencm/ES/11\\_barometros/index.jsp](http://www.cis.es/cis/opencm/ES/11_barometros/index.jsp).

- Zenbait azterketak <sup>14</sup> erakusten dutenez, erakundeei buruzko **estereotipoak edo prebentzioak** ere badaude eta horien artean norberaren irabazirako “estalkia” izatea edo jarduera ekonomikoetan kontrol eta gardentasun falta izatea azpimarratzen dituzte.

**Gardentasuna** konfiantza gehien sor dezakeen alderdietako bat da, batik bat, funtsen jatorriari eta helmugari dagokionez, horregatik, erakundeek erabiltzen dituzten baliabide ekonomikoez egiten duten kudeaketari buruzko informazio gehiago izatea beharrezkoa dirudi.

Ildo horretatik, *Ekonomia Soziala Espainian*<sup>15</sup> txostenak dioenaren arabera, Espainiako biztanleriaren % 53ren arabera, Hirugarren Sektoreko erakundeek **funts publikoekiko mendekotasun handia dute funtzionatuko badute**.

Horrez gain, hamar espainoletik bik soilik pentsatzen du estatuko erakundeek funtsak kontrolatzen dituztela.

2005ean Gizarte Ekintzako GKE-en Plataformarako Accenture Fundazioak egindako *gizarte-ekintzako Hirugarren Sektorearen irudiaren auditoriako* emaitzek erakusten dutenez, erakundeak honako balio edo ideia hauekin lotzen dira, besteak beste: opakutasuna, mendekotasuna, justizia soziala, berdintasuna, txertaketa, partaidetza, heterogeneotasuna, kontrolik eza, konpromisoa, lankidetzeta, tolerantzia eta eraginkortasunik eza.

- EAE mailan, adierazitako moduan, hirugarren sektoreko erakundeen pertzepzio soziala sakontasunean jorratzen ez den arren, *2010eko Bizkaiko Hirugarren Sektoreko Urtekaria*<sup>16</sup> honako hauek egin ditu:
  - Bizkaiko erakundeen konfiantza eta ikusgarritasuna hobetzeko behararen berri eman du eta erakundeen % 44ren ustetan gizarteak sektoreko erakundeengan konfiantza gutxi edo inolako konfiantzarik ez duela adierazi du, osasun eta gizarte-ekintzaren arloekin lotutako erakundeak optimistenak izanik eta giza eskubideen alorrekoak dira gizartearen konfiantza-faltarik handiena jasotzen dutenak.
  - Biztanleriak gatazka sozialengatik eta balioen krisi hazkorrengatik duen kontzientziazio-falta dela eta, zenbait erakunde kezkatuta daudela iragarri du eta horrek beren eginkizunarekiko elkar-tasun eta laguntza sozialen falta ekartzen du.
- Guztira, badirudi orain arte egindako azterketek gizarteak Hirugarren Sektorea antolatutako erakunde multzo gisa jasotzeko zailtasunak dituela adierazten dutela, nahiz eta Hirugarren Sektorea osatzen duten zenbait erakunderen lana ezaguna den eta horien eginkizuna positiboki baloratzen den.

Ikusgarritasun eskasaz gain, gardentasun ekonomikoa edo finantziazio publikoaren mendekotasuna eta antzeko beste alderdi batzuei buruzko iritzi publikoaren pertzepzioarekin lotutako arriskuak aipatzen dira eta horrek, besteak beste, sektoreko kanpo-komunikazioan hobekuntzak bultzatzeko beharra nabarmentzen du.

<sup>14</sup> NUÑEZ MARTIN, Antonio eta GARRIDO LOPEZ, Mar (2003). *Hirugarren sektorea bidegurutzetan: baloreak sortzearen eta kudeaketa profesionalaren artean*, ONG Social aldizkaria. Luis Vives Fundazioa, 15. zk. Maiatza ekaina, 24-27. or..

<sup>15</sup> Op.cit.

<sup>16</sup> Canto, A.; Vidorreta, I.; Cabezas, I. *Bizkaiko Hirugarren Sektoreko Urtekaria 2010*. Bilbo: Bizkaiko Hirugarren Sektoreko Behatokia, 2011.

### 3. HELBURUAK

Ikerketa honen azken helburua Bizkaiko biztanleriak Hirugarren Sektoreari buruz duen pertzepzioari buruzko informazio fidagarria biltzea da.

Honako helburu hauek lortu nahi ditu, hain zuzen ere:

1. Biztanleriak Hirugarren Sektoreaz duen **eza-gutza** aztertzea: biztanleriaren pertzepzioan Hirugarren Sektorea edo irabazi-asmorik gabeko sektorea badagoen, sektorean identifikatzen diren elementuak zein diren, zein ideiarekin lotzen den, zein erakunde ezagutzen diren, horiei buruzko informazioa nola heltzen den eta abar zehaztea.
2. Biztanleriak sektoreko ezaugarri definitzaileei (identitatea) buruz duen pertzepzioari buruzko informazioa biltzea. Hirugarren Sektorea osatzen duten erakundeei buruzko **iritziak** detektatzea, biztanleriak horri buruz duen irudia ezagutzea eta abar.
3. Hirugarren Sektorea osatzen duen erakunde multzoari buruz **biztanleriak egiten duen balorazioa**, horren ekarpenari buruzko ikuspegia eta abar ezagutzea.
4. Biztanleriak Hirugarren Sektorearen **etorkizunari** buruz duen ikuspegia aztertzea, zer uste duen egin behar duela, noranzko bila-kaera izan behar duela uste duen eta abar.

1. Biztanleriak Hirugarren Sektoreaz duen mapa mentala: Hirugarren Sektorearen definizioa eta ezagutza.

2. Biztanleriak Hirugarren Sektoreari buruz duen pertzepzioa eta iritziak, ezaugarri definitzaileei (identitatea) dagokienez.

3. Hirugarren Sektoreko erakundeen lanaren eta ekarpen sozialaren balorazioa.

4. Hirugarren sektoreko erakundeen etorkizuna.

## 4. METODOLOGIA

### Azterketaren xedea

Planteatutako helburuak kontuan hartuta, azterketaren biztanleria-xedetzat hartzen da Bizkaiko Lurralde Historikoan bizi den 18 urtetik gorako biztanleriaren multzoa.

### Teknikak

Metodologia kuantitatiboa aukeratu da, mundu sozialeko fenomenoak deskribatzea eta azaltzea birlatzen duen metodoa, objektiboki existitzen diren orokortzeak formulatzera heltzeraino eta ezagutza sistematiko, egiaztagarri, alderagarri, neurgarri eta erreplikagarriarekin lotuta.



#### Galdeketa telefonikoa

Hain zuzen ere, galdeketa telefonikoa<sup>17</sup> egin zaio Bizkaiko 18 urtetik gorako 600 laguneko laginari.

Lagina biztanleriaren guztizkoaren adierazgarria da estatistikoki eta banaketarekiko lotura proportzionala jasotzen du, sexuan, adinean eta bizi diren udalerrriaren tamainan oinarrituta.<sup>18</sup>

Eskuratutako datuak adinez nagusia den Bizkaiko biztanleriara estrapola daiteke, % 95eko konfiantza maila eta % 4ko errore-marjinarekin.<sup>19</sup>

Landa-lana 2012ko maiatza amaiera eta ekaineko lehen asteen artean garatu da. Pertsonen kokapena bere etxeetan zegoela kontuan hartuta, deien banaketa hainbat ordu-tartetan banatu da, asteko egun guztietan, igande eta jaiegunetan izan ezik.

Hori horrela, pertsona aniztasun handia topatu ahal izan da adinaren arabera eta ez aurrez finkatutako kuotak betez maiztasun handiagoarekin etxean aurkitzen direnak soilik.



#### Bigarren mailako iturrien bilketa eta azterketa

Txosteneko azterketaren zati handiena galdeketa telefonikoaren bidez jasotako informazioan oinarritzen den arren, bigarren mailako iturrietatik<sup>20</sup> etorritako informazioa bilduta eta aztertuta osatzea erabaki da eta horrek gaiaren egoeran sakontzea ahalbidetu du, kontsultarako edukiak identifikatu eta ikerketarako emaitzak testuinguruan kokatzeko eta alderatzeko datuak bilduz.

<sup>17</sup> Erabilitako galdeketa Eranskinetan kontsultatu daiteke.

<sup>18</sup> Unibertsoaren banaketa eta geruzen arabera lagina zehazten duten taulak eranskinetan kontsultatu daitezke.

<sup>19</sup> Garrantzitsua da galdeketa planteatutako galderei eman gabeko erantzun mailak kontuan hartzea. Zenbait kasutan, aztertutako laginak tamaina eta fidagarritasun txikiagoa izaten du.

<sup>20</sup> Erreferentzia bibliografikoak azken kapituluaren kontsulta daitezke.

## 5. BIZTANLERIAK HIRUGARREN SEKTOREARI BURUZ DUEN MAPA MENTALA: DEFINIZIOA ETA EZAGUTZA.


### Ezagutzen al da Bizkaian Hirugarren Sektorea terminoa? Nola definitzen du biztanleriak?

Ikerketa honen aurreko beste lurralde-eremu batzuetako azterketek biztanleriaren artean *Hirugarren Sektorea* terminoaren ezagutza eskasaz ohartarazten zuten eta Bizkaiko biztanleriari egindako galdeketatik lortutako emaitzek joera hori baieztatzen dute.

Zer den badakiela kontsultatutako hamar lagunetik bik soilik (% 20,4) baieztatu dute, eta % 5 inguruk (% 5,3) zerbait entzun duelako irudipena duela esan du (zeri egiten dion erreferentzia ziur jakin gabe). Datu horiek adierazten dute biztanleriak, oro har, terminoa bere horretan oso gutxi ezagutzen duela.

Datu horiek *Ekonomia Soziala Espainian*<sup>21</sup> txostenean argitaratutakoekin antza dute eta horren arabera, 2005ean Espainiako biztanleriaren hiru laurdenak ez zuen terminoa ezagutzen.

#### 1. IRUDIA: “HIRUGARREN SEKTOREA” TERMINOAREN EZAGUTZA



Horrez gain, Hirugarren Sektorea ezagutzen zutela zioten galdetutako pertsonen laburki definitzeko eskatu zitzaizkien<sup>22</sup> askotariko ideiak azkenean sei kategoriatan bilduta:

- Sektorea ezagutzen dutenen % 12,6k **elkarteak, erakunde sozialak edo GKEak zehazten edo aipatzen dituzten** definizioak egin ditu: *“pertsonekin lan egiten duten elkarteak, erakunde sozialen sektoreak, GKE-en sektoreak, elkarteak eta abar jasotzen dituen sektorea”*.

<sup>21</sup> Op.cit.

<sup>22</sup> Informazioa galdera ireki moduan bildu zen eta erantzunak galdeketa telefonikoaren berezko mugekin baldintzatuta egon zirela kontuan hartu behar da. Hori horrela, testuingurua beti ezaguna ez duten adierazpenak, hitzak, kontzeptuak eta ideiak bildu ziren eta, beraz, hemen ez dugu definizioen analisi sakona eskaini nahi, analisirako oinarria mugatua izanik.

- % 14,7k erreferentzia nagusiak **gizarte-ekintzaren, hirugarrenen laguntzaren, laguntzaren eta abarren** ingurukoak dituen definizioa egin du: *“laguntza soziala, pertsonen laguntzen dien sektorea, gizarte-zerbitzuak”* eta abar.
- % 3,2k sektoreko erakunde askoren berezkoak direnekin lotutako **beste jarduerak batzuk** aipatzen dituen definizioa egin du: *“enplegua, hezkuntza”* eta abar.
- % 5,3k sektoreko erakundeen zati handiaren ekintzaren hartzailak izan ohi diren **kolektibo zehatzak** egiten dio aipamena bere definizioan: *“adineko pertsonak, garapen-bidean dauden herrialdeetako kolektiboak, mendeko pertsonak, bazterketa-egoeran dauden pertsonak eta abar”*.
- % 38,9k (talde handiena) Hirugarren Sektorea, oro har, **zerbitzuen** terminoarekin lotzen duen definizioa eskaini du, zerbitzuen sektorearekin edo “hirugarren sektorearekin” nahastuta.
- % 25,3k Hirugarren Sektorearekin **lotura gutxi edo batere loturarik ez duten beste sektore edo jarduerak batzuei** erreferentzia egiten dien definizioaren zirriborroa egin du: *“nekazaritzaren sektorea, arrantzaren sektorea, finantzak, garraioa, tabernak eta abar”*.

Esan daiteke azken bi kategoriek Hirugarren Sektorearen definiziotik urrunden geratzen diren erantzunak biltzen dituztela, lehenengo laurak horrekin neurri handiagoan lotzen diren ideiei aipamena egiten dieten bitartean.

Hala eta guztiz ere, aipatu beharra dago lehenengoak izan ezik, gainerako kategoriek Hirugarren Sektoreko ezaugarri eskusiboei egiten dietela erreferentzia; izan ere, beste sektore batzuen bereizgarri diren ideiak azaltzen baitituzte, bereziki sektore publikoarenak.

Bestalde, bigarren, hirugarren eta laugarren kategorietan, badirudi identifikazioa gertatzen dela Hirugarren Sektorearen eta Hirugarren Sektore sozialaren edo esku-hartze sozialekoaren artean.

Bereizketa horretatik abiatuta, urrats bat gehiago eman daiteke eta terminoak zeri egiten dion erreferentzia badakiela dioten eta baiezko erantzunen gutzizkoari buruzko (Hirugarren Sektorea zer den badakiela dioten biztanleria) eta kontsultatutako biztanleriaren gutzizkoari buruzko gutxi gorabeherako ideia duen biztanleriaren zatia diskriminatu daiteke.

Hori horrela, lehen lau kategoriak kontuan hartuta, Hirugarren Sektoreak adierazten duen errealitate-tik nahiko gertu dauden ideiak biltzen dituzten heinean, definiziotik gertu edo gutxi gorabehera egokia den ezagutza duen kontsultatutako biztanleriaren ehunekoa % 5,7koa da.

Lehen kategoria soilik kontuan hartuz gero (elkartea, erakunde sozialak edo GKEak zehazten dituen edo horiei erreferentzia egiten dien definizioa), terminoa benetan ezagutzen duen biztanleriaren ehunekoa % 2koa dela esan daiteke.

***Bizkaiko biztanleriaren % 6 inguruk  
Hirugarren Sektorea terminoaren  
definiziora hurbiltzen den ezagutza duela  
kalkulatzen da.***

## Ezagutzen al ditu Bizkaiko gizarteak Hirugarren Sektoreko erakundeak?


Bizkaiko biztanleriaren artean, *Hirugarren Sektorea* nagusiki ezaguna ez den terminoa den arren, hori osatzen duten erakundeak ezagunak dira.

Hortaz, izendatzen duen terminoa alde batera utzita, galdetutako pertsonak sektore hori osatzen duten erakunde motetan kokatu direnean (elkarteak, fundazioak, GKEak...), % 75 gutxienez erakunde baten izena adierazteko gai izan da.

**Bizkaiko biztanleriaren 3/4ak erakunde zehatzen baten izena gororatzen du.**

**Ehunekoa % 84ra heltzen da, izenik aipatu gabe, une horretan buruan zuten erakunde edo erakunde motaren bati buruzko aipamena egin dutenak kontuan hartzen badira:** nire auzoko emakumeen elkarteak, auzo-elkarteak, mendi-elkarteak, HIESaren kontra borrokatzeko dirua biltzen duten elkarteak eta abar.

1. GRAFIKOA: ERAKUNDEREN BATEN AIPAMENA. EMAITZA OROKORRAK. %



Emaitzak apur bat hobekiak diren arren, ez dituzte beste azterketa batzuetan bildutakoei dagokienez alde handiak erakusten.

2006. urtean egindako *Irabazi-asmorik gabeko erakundeetako gardentasuna eta komunikazioa* azterketak <sup>23</sup> % 30ean zenbatzen zuten erakunde baten beraren izenik ezagutzen ez zuten Espainiako biztanleria.

2003an garatutako *Arabako elkarte mugimendua hainbat ikuspegitik*<sup>24</sup> azterketak % 28,8 inguruan kalkulatu zuten izen zehatzik aipatzeko gai ez zen biztanleriaren proportzioa. Bizkaian jasotako datuen arabera, ehunekoa % 16 ingurukoa da.

Biztanleria taldeen arteko alderaketak finkatzean, **adinekoen eta heziketa maila txikienekoen sektoreko erakundeen ezagutza-tasa batez bestekoaren azpikoa** dela igarri daiteke. Ikus daitezkeen moduan, datu horiek bat datoz aipatutako azterketak Arabako elkarte-mugimenduari buruz eskainitakoekin ere.

Oro har, erakunderik aipatzen ez duen pertsonen proportzioa % 15,7koa den bitartean, 65 urte edo gehiagokoan artean zifra % 30ekoa da, baina 40 urtetik beherakoan artean % 10era jaisten da.

Lehen mailako ikasketak edo beheragokoak dituen biztanleriaren % 30ak ere ez duela erakunderik ezagutzen dio eta unibertsitateko ikasketak dituztenen artean, aldiz, % 6aren artean gertatzen da egoera hori.

1. TAULA: ERAKUNDEREN BATEN AIPAMENA (izena izan ala ez). EMAITZA OROKORRAK ETA ADINAREN ARABERAKOAK. %

ADINA (*)	Guztira	18 eta 29 artean	30 eta 39 artean	40 eta 49 artean	50 eta 64 artean	65 edo gehiago
Bai	84,3	88,5	93,0	84,2	89,4	69,7
Ez	15,7	11,5	7,0	15,8	10,6	30,3
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Oharra: azaldutako aldagaien arteko gurutzaketan aldeak estatistikoki esanguratsuak direla adierazten du (\*)ak ( $\chi^2 < 0,05$ ).

23 Op.cit.

24 Op.cit.

2. TAULA: ERAKUNDEREN BATEN AIPAMENA (izen propioa izan ala ez).  
EMAITZA OROKORRAK ETA HEZKUNTZA MAILAREN ARABERAKOAK. %

HEZKUNTZA MAILA (*)	Guztira	Ikasketarik ez	Lehen mailako ikasketak (OHO, Oinarrizko batxilergoa, Lehen Hezkuntza)	Bigarren mailako ikasketak (DBH, Goi mailako batxilergoa, IEE, BBB, UBI)	Erdi eta Goi mailako Lanbide Heziketa	Goi mailako ertainak eta goi mailakoak (diplomatura, lizentziatura, gradu ondokoak)
Bai	84,3	70,6	66,7	83,2	90,8	94,2
Ez	15,7	29,4	33,3	16,8	9,2	5,8
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Oharra: azaldutako aldagaien arteko gurutzaketan aldeak estatistikoki esanguratsuak direla adierazten du (\*)ak ( $X^2 < 0,05$ ).

Sektoreko erakunde zehatzen ezagutza zabala Bizkaiko biztanleriaren zati handiak horiekin duen loturarekin estu lotuta dago, loturaren bat izan den kasuetan handiagoa izanik.

3. TAULA: ERAKUNDEREN BATEN AIPAMENA (izen propioa izan ala ez).  
EMAITZA OROKORRAK ETA ERAKUNDEEKIKO LOTURAREN ARABERAKOAK. %

ERAKUNDEREN BATEN AIPAMENA	Guztira	Loturarik gabeko pertsonak
Bai	84,3	63,0
Ez	15,7	37,0
Guztira	100,0	100,0

## Zer lotura ditu biztanleriak erakundeekin?

Jasotako datuen arabera, ***gaur egun sektoreko erakunde batekin gutxienez zuzeneko harremana –intentsitate handiagokoa edo txikiagokoa– duen kontsultatutako biztanleriaren ehunekoak % 62,5ekoa da*** eta harreman hori honela garatzen du: boluntariora garatuta, eginkizun profesionalak garatuta, bertako kide izanda, dohaintzak eginda edo bertako zerbitzuen edo jardueren erabiltzaile izanda.

***Ehunekoak % 72ra egiten du gora, gaur egun lotutako pertsonen gain, iraganean ere lotura izan zutenak kontuan hartuz gero.***

**Horrez gain, biztanleriaren beste % 12,7k,** inoiz zuzeneko loturarik izan gabe, ***“zeharkako” lotura dei daitekeena du,*** hau da, horiekin lan egiten duten edo horietan parte hartzen duten hurbileko pertsonak ezagutzen ditu (senideak, adiskideak...).

***Biztanleriaren  
gehiengoak lotura  
motaren bat du sektoreko  
erakundeekin.***

Horrekin guztiarekin, finkatutako sailkapen-irizpideak kontuan hartuta (zehatzago, taularen oineko oharrak kontsulta daitezke), sektorearekin inolako harremanik ez duen pertsonen ehunekoak % 15,3ra murriztuko litzateke.



4. TAULA: LOTURA MOTAK HIRUGARREN SEKTOREKO ERAKUNDEEKIN. EMAITZA OROKORRAK. %

LOTURA MOTA	Laginareen guztizkoaren gaineko %
EGUN ZUZENENKO LOTURAREN BAT <sup>25</sup>	62,5
ZUZENENKO LOTURAREN BAT <sup>26</sup> (iraganekoa edo gaur egungoa)	72,0
ZEHARKAKO LOTURA <sup>27</sup>	12,7
LOTURAREN BATEN EXISTENTZIA <sup>28</sup> (zuzenekoa edo zeharkakoa, iraganekoa edo egungoa)	84,7
LOTURARIK GABE	15,3
LOTURA MOTA – ZUZENEKOA EGUNGOA <sup>29</sup>	
Kidea da, baina ez du ekonomikoki laguntzen (kuotak eta abar)	1,2
Kidea da eta ekonomikoki laguntzen du (kuotak eta abar)	28,3
Ez da kidea, baina ekonomikoki laguntzen du (dohaintzak eta abar)	31,7
Ohiko erabiltzailea da <sup>30</sup>	7,7
Noizean behingo erabiltzailea da <sup>31</sup>	15,2
Boluntarioa da	10,7
Erakunde bateko soldatapeko langilea da	0,7

### Sektoreko zer erakunde ezagutzen ditu biztanleriak?

Jasotako datuen arabera, Bizkaiko biztanleriaren zati handi batek Hirugarren Sektoreko erakunderen bat ezagutzen duela baieztatzeaz gain, **ezagutzen diren erakundeen sorta askotarikoa dela** ere esan daiteke.

Galdetutako en artean aipatutako erakunde guztien artean (1.063 aipamen guztira<sup>32</sup>) 184 desberdin jaso dira.

Zein dira gehien ezagutzen diren erakundeak? Ondoren, gehien aipatutako 15 erakunde **sailkapena** eta horiei dagokien jarduera alorrek azalduko ditugu.

**Mugarik Gabeko Medikua, Gurutze Gorria, Caritas, DYA eta Unicef dira gehien aipatutako erakundeetako batzuk.**

25 Egun dagoen zuzeneko lotura mota oro hartzen da kontuan: kide diren pertsonak, dohaintzak egiten dituztenak, boluntariora egiten dutenak eta abar.

26 Egun dagoen edo iraganean izandako zuzeneko lotura mota oro hartzen da kontuan.

27 Zeharkako lotura mota oro hartzen da kontuan: erakunderen bateko kide den norbait ezagutzea (senideak, adiskideak, pertsona ezagunak eta abar).

28 Egun dagoen edo iraganean izandako zuzeneko lotura mota oro hartzen da kontuan, baita zeharkako lotura oro ere.

29 Erantzun anizkoitza izanik, datuek ez dute 100 batzen. Horrez gain, baliteke pertsonak erakunde bati baino gehiagori erreferentzia egitea (adibidez, erakunde bateko kide izatea adierazi dezake eta, aldi berean, beste batetako ohiko erabiltzailea dela adierazi).

30 Ohiko erabiltzailetzat hartzen da: erakundeak eskaintzen dituen zerbitzuez modu egonkorrean edo aldi behin erabilera egitea, antolatutako ekintzetara joatea, informazioa edo aholkularitza jasotzea eta abar.

31 Noizean behingo erabiltzailetzat hartzen da: erakundeak eskaintzen dituen zerbitzuez modu puntualean edo noizean behin erabilera egitea, antolatutako ekintzetara joatea, informazioa edo aholkularitza jasotzea eta abar.

32 Galdeketa egin zitzaizkion gehienez hiru erakunde aipatzeko eskatu zitzaizkion.

5. TAULA: GEHIEN AIPATUTAKO ERAKUNDEEN SAILKAPENA (IZENAK)  
ETA DAGOKIEN JARDUERA<sup>33</sup> ALORRA. EMAITZA OROKORRAK. %

	ERAKUNDEA	%	Joakera alorra
1	MUGARIK GABEKO MEDIKUAK	12,3	Garapenerako Nazioarteko Lankidetzak
2	GURUTZE GORRIA	10,8	Beste batzuk
3	CARITAS	10,4	Gizarte-ekintza
4	DYA	6,1	Osasuna
5	UNICEF	4,9	Giza Eskubideak
6	ANESVAD	4,7	Garapenerako Nazioarteko Lankidetzak
7	INTERMON OXFAM	3,3	Garapenerako Nazioarteko Lankidetzak
8	MEDICUS MUNDI	3,3	Garapenerako Nazioarteko Lankidetzak
9	MANOS UNIDAS	1,9	Garapenerako Nazioarteko Lankidetzak
10	GREENPEACE	1,9	Ingurumena
11	ACNUR	1,8	Garapenerako Nazioarteko Lankidetzak
12	VICENTE FERRER FUNDAZIOA	1,7	Garapenerako Nazioarteko Lankidetzak
13	MUNDUKO MEDIKUAK	1,4	Garapenerako Nazioarteko Lankidetzak
14	AYUDA EN ACCIÓN	1,3	Garapenerako Nazioarteko Lankidetzak
15	GORABIDE	1,3	Gizarte-ekintza

Aipatutako erakunde guztien artetik, Mugarik Gabeko Medikuek, Gurutze Gorria, Caritas, DYA eta Unicef dira sailkapeneko lehen postuetan daudenak.

Esan bezala, galdetutako pertsonen zenbaitetan ez dute erakundearen izena bera esan, baina izen generikoa erabilia erakunde jakinei egin diete erreferentzia. Hurrengo bi grafikoek aipamen mota hori ere jasotzen duen sailkapeneko datuak azaltzen dituzte, sexuaren arabera bereizita.


Sexuaren araberako alde esanguratsuez hitz egin ezin daitekeen arren, emakumeen kasuan, emakumeen elkarrekin, minbiziaren kontra borrokatzeko elkarrekin eta adineko pertsonen edo erretiratuaren elkarrekin lehen 15en artean daudela iragartzen da, gizonezkoen kasuan, aldiz, erakunde mota hori ez dago gehien aipatutakoen artean. Alderantziz gertatzen da gizonezkoen aipamenak soilik kontuan hartzen dituen sailkapeneko lehen 15 postuak hartzen dituzten auzo-elkarrekin.

<sup>33</sup> Alorren araberako sailkapenerako Bizkaiko Hirugarren Sektorearen Behatokiak finkatutako sailkapena hartu da. Eranskinetan alor bakoitzeko definizioa kontsulta daiteke. Alorren esleipena erakundeko errealitateari gehien egokitzen zaionarekin bat dator, zenbait erakunde alor batean baino gehiagotan esku hartzeagatik bereizten dela egia bada ere.


2. GRAFIKOA: GEHIEN AIPATUTAKO ERAKUNDEEN SAILKAPENA  
(IZEN PROPIOAK ETA GENERIKOAK). SEXUAREN ARABERAKO EMAITZAK. %



GEHIEN AIPATUTAKO ERAKUNDEEN SAILKAPENA  
GIZONAK




GEHIEN AIPATUTAKO ERAKUNDEEN SAILKAPENA  
EMAKUMEAK



Aipatutako 184 erakundeen artean % 27,9 Garapenerako Nazioarteko Lankidetzarako erakundeak dira. Gertutik jarraitzen diete Gizarte-ekintzako erakundeek (% 26,7) eta hirugarren postua hiri alorreko erakundeek hartzen dute (% 11,5). Azken buruan, enplegu eta kirol alorreko erakundeak daude.

3. GRAFIKOA: GEHIEN AIPATUTAKO JARDUERA ALORRA<sup>34</sup>. EMAITZA OROKORRAK<sup>35</sup>. %

- Garapenerako Nazioarteko Lankidetzak/ 27,9
- Gizarte-ekintza/ 26,7
- Hiritar/ 11,5
- Kultura/ 6,1
- Osauna/ 6,1
- Beste batzuk/ 6,1
- Ingurumena/ 5,5
- Astialdia/ 3,0
- Giza Eskubideak/ 3,0
- Kirola/ 2,4
- Enplegua/ 1,8



***Gehien aipatutako jarduera alorra Garapenerako Nazioarteko Lankidetzarena da, gizarte-ekintzaren alorrek oso hurbiletik jarraituta.***

Garapenerako Nazioarteko Lankidetzako erakundeek aipatutako arteen dute presentzia esanguratsua sektorean dute pisuarekin erkatzen da. Hori horrela, 2010eko Bizkaiko Hirugarren Sektoreko Urtekarian jasotako informazioari jarraiki, Bizkaian guztira sektoreko erakundeen % 4 inguru izan daitekeela kalkulatzen da.

Adierazitako moduan, zenbait azterketak <sup>36</sup>erakundeek proiektu kopuru handia izatea, oinarri sozial zabala izatea eta ikusgarritasun handiagoa azaltzen duten faktore gisa jarduera komunikatibo handiagoa iradokitzen dute.

### **Zerekin lotzen dute herritarrek Hirugarren Sektorea?**

*Hirugarren Sektorea* terminoa ezagutzen zuten ala ez albo batera utzita, galdetutako pertsonak sektorea osatzen duten erakunde motaren arabera kokatu zirenean (erakundeak, fundazioak, GKEak...), erakundeekin lotzen dituzten ideiak adierazteko eskatu zitzaientzen, herritarrek Hirugarren Sektoreari buruz duten irudikarian sakontzeko xedearekin.

***Hirugarren Sektorearekin lotzen diren ideiek konnotazio positiboa dute nagusiki.***

<sup>34</sup> Eranskinetan alor bakoitzeko definizioa kontsulta daiteke. Alorren esleipena erakundeok errealitateari gehien egokitzen zaionarekin bat dator, zenbait erakunde alor batean baino gehiagotan esku hartzeagatik bereizten dela egia bada ere.

<sup>35</sup> *Beste batzuk* kategoria alorrekiko zeharkakoa da eta bat bera ere ez da nabarmentzen jardueraren gainerakoan. Zenbaitetan, alorrekiko independentzia duten beste erakunde batzuei estaldura ematea izan daiteke bere jarduera. BBVA Fundazioa, Caixa Fundazioa eta abar bezalako erreferentziak bildu dira. Baita Gurutze Gorria ere, jarduera alor batekin ere bat etortzen ez dena.


<sup>36</sup> ESPAINIAREN GARAPENERAKO GKE-EN KOORDINAKUNDEA. *Horrela ikusten gaituzte, zer dakigu eta nola baloratzen ditugu GGKEak?* Coordinadora argitalpenak. 2010.

Guztira, Bizkaiko biztanleriak elkarteekin, fundazioekin eta GKE-ekin lotzen dituen **943 ideia** (567 lagunak, kontsultatutako biztanleriaren % 94,5ena)<sup>37</sup> bildu dira.

Bildutako kontzeptuen eta balorazioen aniztasunaren aurrean, sailkapena finkatzea egokia iruditu zaigu. Hori horrela, adierazitako ideien artean, balorazio-izaera argia duten ideiak (guztizkoaren % 73,6) deskriptiboagoak diren beste batzuetatik bereizi daitezke, erakundeetako jarduera edo ekintzekin lotutakoak (% 26,6), zuzendutako kolektiboekin lotutakoak edo jarduera alorrarekin (% 15,4) lotutakoak<sup>38</sup>.

A) Alde batetik, esan beharra dago balorazio-izaerarekin adierazitako ideia guztietatik<sup>39</sup>:

## 2. IRUDIA: ANTOLAKETEEI BURUZKO BALORAZIOZKO IDEIAK. % EMAITZA OROKORRAK



% 78,7k konnotazio positiboa duela;  
% 13,7k konnotazio negatiboa duela;  
Gainerako % 7,6 bi interesguneetako baten alde agertzen ez diren eta sektorearen heterogeneotasuna aipatzen duten pertsonak adierazitako ideiei dagokiola (“batzuk ondo funtzionatzen dute eta beste batzuk gaizki; batzuk ondo iruditzen zaizkit eta beste batzuk ez; batzuk gehiago konbentzitzen naute eta beste batzuk gutxiago” eta abar).

**Konnotazio POSITIBOA duten ideien** artean, elkartasunarekin eta egindako lanaren giza izaerarekin lotutako gaiak nabarmentzen dira nagusiki. Era berean, Hirugarren Sektoreko erakundeak izatearen garrantziari buruzko erreferentzia generikoak ohikoak dira:

**% 78,7** Erakundeen **borondatezko, doako eta altruista izaera** nabarmentzen da, baita horietan **parte hartzen dutenen elkartasuna** ere: *altruismoa, jende solidarioa, boluntariotza, elkartasuna, oso borondate oneko jendea, lan filantropikoak, jende eskuzabal asko eta abar.*

**Pertsonen eta** horiek parte hartzen duten **erakundeetako beste balio batzuk** azpimarratzen dira: *lan duina, erakunde horietako pertsonen giza kalitatea, konpromisoa, garapena, eskuzabaltasuna, jende ausarta, apaltasuna, justizia, ekitatea, meritua, jendearekiko errespetua eta abar.*

**Erakundeak egoteko beharraren** erreferentziak ere badaude –neurri txikiagoan bada ere–: *onak eta beharrezkoak dira, gizartean beharrezkoak dira eta abar.*

**Konnotazio NEGATIBOA duten ideien** artean, irabazi-asmoarekin<sup>40</sup>, funtsen kudeaketarekin eta garrantasunarekin lotutako gaiak bildu dira nagusiki. Esan beharra dago sektorearekiko nolabaiteko errezeloa adierazi dutenek erakunde kopuru murriztuari egin diotela erreferentzia, inolako kasu zehatzik espezifikatu gabe. Hori horrela:

<sup>37</sup> Galdetutako pertsona bakoitzak hiru ideia adieraz zitzakeen.

<sup>38</sup> Hiru ehunekok ez dute 100 batzen, ideia baten balorazio-izaerak ez dutelako jardueri edo kolektiboekin lotutako ideien analisian ere kontuan hartzea eragozten.

<sup>39</sup> Atal honetan 483 lagunetatik etorritako 694 ideia aztertu dira (bakoitzak 3 adieraz zitzakeen gehienez), hau da, kontsultatutako biztanleriaren % 80,5.

<sup>40</sup> Aurrerago ikusiko dugun moduan, ezaugarri definitzaileei buruzko galderari erantzuten dieten galdetutako % 33,9k ez du irabazi-asmorik gabeko izaera izatea erakunde benetako bereizgarritzat hartzen (horiek nolakoak diren eta ez nolakoak izan beharko luketen). Bestalde, iritziekin lotutako galderei erantzuten dion % 35,5ak iritzi hau du: erakunde horietako asko bazkideen etekinera sortzen dira esklusiboki eta ez dira haratago joaten (ez dute guztien ongia bilatzen).

**% 13,7** Nolabaiteko **konfiantza-falta** adierazten duten zenbait ideia bildu dira: *zalantza dago zenbaitek eskuzabalki lan egiten dutelako eta beste batzuk ez, ez naiz guztiz fio, ongia egiten dutela pentsatu nahi dut eta abar.* Antzeko ildotik, kudeaketa ekonomikoaren erreferentziaren bat jaso da, zenbait erakunderen irabazi-asmorik gabeko izaera zalantzan jarrita eta funtsen helmugari buruzko gardentasun-falta aipatuta.

Neurri askoz ere txikiagoan, “engainua” ere aipatzen da eta “iruzurra”, “ustelkeria” edo “azpikeria” eta antzeko terminoak erabiltzen dira: *zenbaitetan apur bat iruzurra dira, irabazirik eta ustelkeriarik egongo ez balitz, oso ondo egongo lirateke, batzuetan ustelkeria edo funtsen desbideratze kasu anekdotikoak gertatzen dira, diru askok ihes egite du, ez naiz fio, ez baitakit dirua nora doan, engainuak daude eta abar.*

B) Bestalde, erakundeetako jarduera edo ekintzen aipamenekin bat egiten duten **GEHIEN ERREPIKATUTAKO ideiei**<sup>41</sup> arreta eskaintzeak gizartearen ikusgarritasun handiena duen erakundeen eginkizunaren zatiari buruzko pistak ematen ditu.

Aipamen gehienak pertsoneri emandako laguntzari buruzkoak dira: *laguntza behar duenari, laguntza humanitarioa, laguntza puntuala eta abar.* Hala ere, gizartearen hobekuntza eta eraldaketa eta antzeko ekintzak, sentsibilizazioak, funts-bilketak edo ikerketak irudikari kolektiboan presentzia txikiagoa dute.

Gainera, adierazitako ideia guztien zati esanguratsuak<sup>42</sup> kolektiboei edo jarduera alorrei aipamena egiten die. Aipamenen maiztasunari erantzuten badiogu, bazterketa eta baliabiderik gabeko edo bazterketa-arriskuan dauden pertsonak, garapenerako nazioarteko lankidetza eta haurren eta adineko pertsonen laguntza nabarmentzen dira.

Erantzunen arabera, kultura, osasuna, ingurumena edo aisia eta denbora librea eta halako Hirugarren Sektorera beste jarduera alor batzuk Bizkaiko biztanleriak sektoreaz duen irudian ez daudela hain presente esan daiteke.

## **Bizkaiko biztanleriak zer informazio du erakundeetari buruz? Nahikoa al da? Zer baliabideren bidez heltzen da?**

Herritarrek erakundeetari buruz jasotzen duten informazioa mota askotarikoa izan daiteke, besteak beste, sektoreak berak biltzen dituen askotariko errealitateak direla eta, bertan komunikabideetan eragin handiagoa nahiz txikiagoa duten erakundeak, toki izaerako erakundeak eta nazioarte mailako erakundeak ere elkarrekin bizi direlako.

***Batez ere proiektu zehatzak eta funtsak biltzeko kanpainak dira ikusgarriak; biztanleriak, aldiz, badirudi informazio gutxiago duela ekintza boluntarioari, protesta-alderdiari eta erakundeetako funtsen helmugari buruz.***

**Erakunde horiei buruzko inolako informaziorik ez duela dioen Bizkaiko biztanleriaren % 5,5ek izan ezik, gainerakoak dio informazioa duela edo Hirugarren Sektorera erakundeekin zerikusia duen informazioa ikusi edo jaso izana gogoratzen duela.**

<sup>41</sup> Atal honetan 174 lagunetatik etorritako 185 ideia aztertu dira (bakoitzak 3 adieraz zitzakeen gehienez), hau da, kontsultatutako biztanleria guztiaren % 29.

<sup>42</sup> Atal honetan 90 lagunetatik etorritako 107 ideia aztertu dira (bakoitzak 3 adieraz zitzakeen gehienez), hau da, kontsultatutako biztanleria guztiaren % 15.


## Honako hauekin zerikusia duen informazioa gogoratuko dugu<sup>43</sup> nagusiki:

- erakundeetako *jarduerak, ekintzak edo proiektuak* (galdetutako 10 lagunetik ia 4k informazio mota hori duela dio);
- *funtsak biltzeko publizitate-kanpainak* (% 27k informazio mota hori gogoratzen du).

Pertsonen % 13,5ek erakundeetako *ekintza positiboekin* lotutako informazioari ere egiten dio erreferentzia (emaitzak eta abar).

Beste eduki batzuk, aldiz, nabarmen gutxiago aipatu dira. Hori horrela, badirudi erakundeetako *boluntariotzari, protesta-ekintzari eta salaketari, bildutako funtsen helmugari* edo erakundeetako *funtzionamenduari eta kudeaketari* buruzko informazio gutxiago jasotzen dela.

### 4. GRAFIKOA: ERAKUNDEEI BURUZ DAGOEN INFORMAZIOA EDO IKUSI EDO JASO IZANA GOGORATZEN DEN INFORMAZIOA. EMAITZA OROKORRAK. %



Oharra: erantzun anizkoitzeko galdera denez, ehunekoek ez dute % 100 batzen.


**Bizkaiko biztanleriak** Hirugarren Sektoreko erakundeei buruzko **informazioa jasotzeko komunikabide nagusia** *telebista* dela dirudi (10 lagunetik ia 4k aipatu du komunikabide hori), oso gertutik *kartelek, liburuxkek, gutunek* edo erakundeetako *posta elektronikoa* jarraituta (% 35ek adierazi du aukera hori).

*Prentsak* (10 lagunetik 2k aipatu du), *Internetek eta sare sozialek* (% 16,3k egiten die erreferentzia) komunikabideen bigarren taldea osatzen dute; *hitzaldiak edo konferentziak* eta beste bide batzuk, aldiz, ia ez dira aipatu ere egiten.

Bestalde, *erakundea informaziorako zuzeneko bide gisa* adierazten dutenak (% 2,7) erakundean lan egiten dutenak, erakundean boluntario gisa aritzen direnak edo bertako erabiltzaileak direnak izan ohi dira.

<sup>43</sup> Biztanleriak duen informazio mota zein den ezagutzeko edo erakundeei buruz neurri handiagoan gogoratzen duena zein den ezagutzeko, galdera irekia egin zen. Ondoren, bildutako informazioa kategorietan sailkatu zen.

5. GRAFIKOA: ERAKUNDEEI BURUZKO INFORMAZIOA JASOTZEKO BALIABIDE NAGUSIA.  
EMAITZA OROKORRAK. %



Oharra: erantzun anizkoitzeko galderaenez, ehunekoek ez dute % 100 batzen.

### Bizkaiko herritarrek behar adina informazio dutela jotzen al da?

Biztanleriaren % 45,3k uste du Hirugarren Sektoreko erakundeei buruzko behar adina informazio dela, baina pixka bat altuagoa den ehunekoak (% 54,7), aldiz, dagoen informazioa gutxi dela edo ez dela behar adinakoa uste du.

***Biztanleriaren % 54,7k dio erakundeei buruz dagoen informazioa gutxi dela edo ez dela behar adinakoa.***

Adinak behera egiten duen heinean, informazioa eskastzat hartzen duen pertsonen ehuneko handiagoa da. Hortaz, 30 urtetik beherako 10 lagunetik 7k informazio gutxi dagoela uste du, aldiz, 65 urte edo gehiagokoen artean ehunekoak % 37ra murrizten da.

Bestalde, erretiratuak, adinari buruzko datuarekiko koherentzian, edo etxeko lanak egiten dituztenak dira neurri handiagoan dagoen informazioa nahikoa dela pentsatzen dutenak. Lana dutenek, langabetuek edo ikasleek informazio-gabezia handiagoa iragartzen dute.

Era berean, herri txikietan edo hiriburuan bizi den biztanleriaren erdia baino zerbait gehiagok informazioa nahikoa dela uste du, baina ehunekoak behera egiten du (% 38,10) tamaina ertaineko herrietan bizi diren artean.



6. TAULA: ERAKUNDEEI BURUZKO INFORMAZIOAREN NAHIKOTASUNARI BURUZKO BALORAZIOA. EMAITZA OROKORRAK ETA ADINAREN, LAN EGOERAREN, HERRI MOTAREN ETA POSIZIONAMENDU IDEOLOGIKOAREN ARABERAKOAK. %

Informazioaren nahikotasunari buruzko balorazioa (*)		Nahikoa	Gutxi edo eskasa	Gutzira
Gutzira		<b>45,3</b>	<b>54,7</b>	<b>100</b>
Adina	18tik 29 urte arte	31,4	68,6	100
	30etik 39 urte arte	28,8	71,2	100
	40tik 49 urte arte	45,9	54,1	100
	50etik 64 urte arte	51,1	48,9	100
	65 urte edo gehiago	62,7	37,3	100
Lan-egoera	Lanean	39,5	60,5	100
	Langabetuta	40,8	59,2	100
	Erretiratuta	58,5	41,5	100
	Etxeko lanak	58,5	41,5	100
	Ikaslea	20	80	100
Herri-mota	10.000 biztanlekoa	51,9	48,1	100
	10.000 eta 120.000 biztanle artekoa	38,1	61,9	100
	Hiriburua	53,4	46,6	100
Posizionamendu ideologikoa	<i>Ezkerra</i>	50,3	49,7	100
	<i>Zentroa</i>	34,2	65,8	100
	<i>Eskuina</i>	63,6	36,4	100
Lotura mota	Zuzeneko lotura	49,0	51,0	100
	Loturarik ez	35,1	64,9	100

Oharra: azaldukatu aldagaien arteko gurutzaketan aldeak estatistikoki esanguratsuak direla adierazten du (\*)ak ( $X^2 < 0,05$ ). Posizionamendu ideologikoa aldagaiaren datuak arretaz jorratu behar dira, zenbait kategoriaren lagina txikia delako.

Erakundeekiko zuzeneko loturarik ez dutenak dira informazio-falta gehien sumatzen dutenak. Hortaz, **zuzeneko loturarik ez dutenen % 64,9ren ustetan informazioa ez da nahikoa.**

Hala eta guztiz ere, esan beharra dago erakunde-  
ren batekin (boluntario izanik, kide izanik, dohaintzak eginda eta abar) **zuzeneko harremana** (gutxi gorabehera estua) **dutenen edo izan dutenen % 51k** ere **jasotzen duen informazioa gutxi edo eskasa dela uste du.**

Informazioa gutxi edo eskasa dela uste dutenek nahi duten **informazioaren edukiei** dagokionez:

- 10etik ia 4ri erakundeetako finantzaketa eta kudeaketa ekonomikoari, kontuen kontrolari eta funtsen eta dohaintzen helmugari buruzko informazioa izatea gustatuko litzaioke.

7. TAULA: ERAKUNDEEI BURUZKO INFORMAZIOAREN NAHIKOTASUNARI BURUZKO BALORAZIOA. EMAITZA OROKORRAK ETA ERAKUNDEEKIKO LOTURAREN ARABERAKOAK

Informazioaren nahikotasunari buruzko balorazioa (*)	Gutzira	Zuzeneko lotura dago (egungoa edo iraganekoa)	Ez dago loturarik
Nahikoa	45,3	49,0	35,1
Gutxi edo eskasa	54,7	51,0	64,9
Gutzira	100,0	100,0	100,0


Oharra: azaldukatu aldagaien arteko gurutzaketan aldeak estatistikoki esanguratsuak direla adierazten du (\*)ak ( $X^2 < 0,05$ ).

**Informazioa eskasa dela uste duten herritarrek gehiago jakin nahi dute, nagusiki erakundeetako kudeaketa ekonomikoari eta garatutako funtsen, ekintzen eta proiektuen helmugari buruz.**

- % 26,5ek erakundeetako jarduerari, abian dituzten proiektu edo jarduerari eta, azken batean, egiten duten lanari buruzko informazioa eduki nahiko luke.
- Azkenik, % 10,8k erakundeetako helburuari, funtzionamenduari edo kudeaketari buruzko interesa azaltzen du.

Lankidetzarako edo, oro har, boluntariotzarako moduen erreferentziak (zer egiten duten, nola parte hartu eta abar) % 5ek aipatzen ditu eta beste hainbestek (% 5,4) inguruneari buruzko informazioa izatearen edo zenbait kolektiboren beharren garrantzia adierazten du.


6. GRAFIKOA: DESIRATUTAKO INFORMAZIOA. %



Nagusiki, Bizkaiko biztanleriak (% 67,1) erakundeek **presentzia sozial** dezente edo asko dutela pentsatzen du eta % 27,6k, berriz, presentzia txikia edo batere presentziarik ez dutela pentsatzen du.

Horrez gain, % 5,2ren arabera, erakunde bakoitzaren arabera da asko; izan ere, batzuk presentzia sozial izugarria duten artean, beste batzuetako egoera oso bestelakoa da.

7. GRAFIKOA: ERAKUNDEEN PRESENTZIA SOZIALA. EMAITZA OROKORRAK. %<sup>44</sup>



<sup>44</sup> Galdetutako biztanleriaren % 4,7k ez du galdera hori erantzun.

## 6. BIZTANLERIAK HIRUGARREN SEKTOREARI BURUZ DUEN PERTZEPZIOA ETA IRITZIAK, EZAUGARRI DEFINITZAILEEI (IDENTITATEA) DAGOKIENEZ

Atal honetan Hirugarren Sektorearen definizio teorikoa biztanleriak erakundeei buruz duen (nolakoa den, eta ez nolakoa izan behar zukeen) ikuspegiarekin alderatu nahi izan da.


Biztanleriak ezagutzen al ditu Hirugarren Sektorea definitzen duten ezaugarriak? Definizioa osatzen duten elementuak zein neurritan azaltzen dira biztanleriak nagusiki erakundeei buruz duen ikuspegian?

Bizkaiko Hirugarren Sektorearen Behatokiak emandako Hirugarren Sektorearen definizioa erreferentziatzat hartuta<sup>45</sup> lau ezaugarri definitzaile bereizi dira eta biztanleriak duen horien barneratze maila aztertu nahi izan da.

Sektoreko erakundeak:

- hein batean boluntarioz osatuta egoteagatik bereizten dira.
- herritarren ekimenetik sortzen dira.
- administrazio publikoa (gobernuak), enpresak eta abar albo batera utzita funtzionatzen dute.
- ez dute etekin ekonomikorik bilatzen eta lortuz gero, beren jardueran inbertitzen dituzte beti.

8. GRAFIKOA: HIRUGARREN SEKTOREKO ERAKUNDEEN EZAUGARRI DEFINITZAILEEKIKO ADOSTASUN MAILA. EMAITZA OROKORRAK. %



Jasotako informazioaren arabera, herritarrek ondoen identifikatzen dituzten ezaugarriak sektoreko erakundeetan boluntarioek egiten duten partaidetzari buruzkoak eta herritarren ekimen librea sortzeari dagozkionak direla esan daiteke.

45 “Hirugarren sektore gisa hartzen da: gizarte zibileko aktiboko ekimen multzoak osatutakoa, kudeaketa-autonomia eta independentziarekin, irabazi-asmorik gabekoa eta orokorrean borondatezkoa, eta bere jarduera esku-hartze sozialera bideratzen duena zentzu zabalenean. Horrek esan nahi du, ingurune soziala askotariko eremuetatik hobetzea duela helburu, Bizkaiko Lurralde Historikoan”.

Hori horrela, kontsultatutako pertsonen % 90 nahiko edo oso ados dago Hirugarren Sektoreko erakundeen *bereizgarri boluntarioz osatuta egotea izatearekin*.

Ia hamar lagunetik zortziren ustetan, *erakundeak herritarren ekimenetik sortzen dira*.

Irabazi-asmorik gabeko izaerari dagokionez, esan beharra dago gehien-goak (% 66,1) *erakundeek ez dutela etekin ekonomikorik bilatzen pentsatzen duela eta hortaz gero, beren jardueran inbertitzen dutela beti*.

Hala eta guztiz ere, kontsultatutako hiru lagunetik bat baieztapen horrekin ez da ia ados edo ez da batera ados agertzen (hortaz, ez da aurreko bi ezaugarriak bezain biztanleria zabalak onartutako ezaugarria).

Besteak beste, badirudi erakundeen independentziari eta autonomiari buruzkoa dela gizartean guxien islatzen dena.

Hori horrela, *erakundeek bestelako eragileekiko (administrazio publiko edo enpresak, esaterako) independenteki funtzionatzearekin* ados daudenen ehunekoa % 54,3ra murrizten da<sup>46</sup>.

Hirugarren Sektoreko erakundeetarako oso garrantzitsua da komunikazioan indartzea –eta beharrezkoa izanez gero, praktikan bermatzea– irabazi-asmorik gabeko izaera (hau da, etekin ekonomikoa maximizatzea bideratuta ez egotea eta etekinik izanez gero, erakundeko jardueran berriro inbertitzea) eta administrazio publikoekiko eta bestelako eragile sozialekiko independentzia indartzea.

Berehala ikusiko den moduan, alderdi horiek hartu behar dira kontuan Hirugarren Sektoreko erakundeekin zuzeneko loturarik ez duten edo izan ez duten pertsonengana zuzentzerakoan.

Badirudi adin gehieneko (65 urte edo gehiago) pertsona taldea dela sektoreko definizio teorikoaren ezaugarriak neurri handienez bere gain hartzen dituenak.<sup>47</sup>

Hortaz, talde horrek beste adin talde batzuk baino presenteago du honako hau:

- Erakundeak herritarren ekimenetik sortzen direla (talde horretako pertsonen % 87k hala irizten dio, gazteenei dagokienez, berriz, % 75ek);
- Administrazioak alde batera utzita funtzionatzen dutela (% 68, % 50ekin alderatuta, 40 urtetik beherakoak direnean);
- Ez dutela etekin ekonomikorik bilatzen (kasu horretan, bai adin gehieneko taldeak, bai 40 eta 49 urte artekoak erregistratzen dituzte ehunekorik handienak, 10etik 7).

Hezkuntza maila handiena dutenen artean Hirugarren Sektoreari esleitutako ezaugarriekiko adostasun maila apur bat txikiagoa atzematen da, beste heziketa maila batzuekin alderatuta.

<sup>46</sup> *Erakundeek beste erakunde batzuekiko independenteki funtzionatzeari* buruzko iritzia ematerakoan erantzun gabeko ehunekoa % 14,3koa izan da, beraz, datuak arreta handiagoarekin hartu behar dira.

<sup>47</sup> Adinaren, heziketa mailaren edo zuzeneko loturaren arabera gurutzaketen taulak eranskinetan kontsultatu daitezke.

***Izaera boluntarioa eta herritarren ekimenetik sortzea dira sektorean aitorpen gehien duten ezaugarriak. Independentzia edo autonomia, aldiz, zailantzan gehien jartzen diren ezaugarriak dira***

Hortaz, zenbat eta handiagoa izan heziketa maila, erakundeak honako hauengatik bereizten direla defendatzen duen ideiarekiko adostasuna txikiagoa da:

- Boluntarioez osatuta egotea (goi mailako ikasketak dituztenen % 85 ados dago, lehen edo bigarren mailako ikasketak dituztenen % 93aren aurrean).
- Herritarren ekimenetik sortzea (lehen edo bigarren mailako ikasketak dituztenen % 85 inguruk ideia hori partekatzen du eta goi mailako ikasketak dituztenen artean, berriz, 10 puntu inguru gutxitzen da ehuneko hori).

Erakunde batekin zuzeneko loturaren bat izatea (egun edo iraganean) ere, aldeak ezartzen dituen gaia da.

Hori horrela, sektoreko erakundeekin zuzeneko lotura duten edo izan duten pertsonen % 82k herritarren ekimenetik sortzen dela uste du, % 73k, berriz, ez du halako loturarik.

Horrez gain, zuzeneko loturaren bat duen edo izan duen pertsona talde hori da neurri handiagoan erakundeek etekin ekonomikorik bilatzen ez dutela pentsatzen duena eta lortuz gero, beren jardueran inbertitzen dutela uste duena. Horrela pentsatzen du hamar lagunetik zazpi eta hamarretik seik, zuzeneko loturarik ez dutenez ari garenean.

## **Hirugarren Sektoreari buruzko iritzia**

Pertsonak askotan sozialki finkatutako iritzietan oinarrituta eraikitzen dute errealitateari buruzko ikuspegia eta ez zuzenean edo eskusiboki beren esperientzian oinarrituta.

Gizartean dauden iritzi gehienak zenbait fenomeno interpretatu eta ulertzeko jasotako azalpen kulturaletatik datoz. Kanpo-iritziak dira, oro har, inguratzen gaituzten pertsonen balioak, jokabideak, jarrerak, pentsamenduak eta abar barneratzean sortzen direnak. Iritzi horiei esker, banakoen multzoak ideia jakinak egiaztat hartzen ditu.

Zenbait kasutan, iritzi horiek bat etor daitezke, guztiz edo partzialki, erreferentzia egiten dioten errealitatearekin. Beste batzuetan, aldiz, errealitatea horietatik oso urrun egon daiteke. Kasu horretan, gizartean oso sustraituta egon daitezkeen aurreiritziak edo estereotipoak izan daitezke, izaera objektiboagoa duten informazioek balio gabetzeko aukera albo batera utzita.

Herritarren pertzepzioari buruzko informazioa jasotzeak gai hori neurtzeko balio dezake. Pertzepzioak, banakoek egoera sozial zehatz bati buruz egiten duten balorazioa izanik, gaiaren egoera haztatzea eta gertakari jakinari buruzko iritzia ezagutzea ahalbidetzen dute. Hirugarren Sektorearen inguruko iritziak neurtzeko etorkizuneko komunikazio-estrategia hobek finkatzen lagun dezake, gizarteak eskura duen informazioa hobetzeko, biztanleriak errealitatearekiko duen pertzepzioa doitzeko eta estereotipoei aurre egiten laguntzeko.

Hori dela eta, aurreko analisia osatzeko, askotan Hirugarren Sektorearekin lotzen diren iritzi esanguratsuenei buruz Bizkaiko biztanleriak duen onespen maila aztertzen ere ahalegindu dira, besteak beste, honako alderdi hauei dagokienez: *finantziario-iturriak, autonomia maila, kudeaketaren eraginkortasuna, ekarpen soziala eta abar.*

8. TAULA: HIRUGARREN SEKTOREARI BURUZKO HAINBAT IRITZIREN ONESPENA. EMAITZA OROKORRAK. %

ALORRA	ERAKUNDEAK...	Erabat desados edo adostasun gutxi	Nahiko ados edo erabat ados	Guztira	Erantzun gabekoen %
EKARPENA	Erakunde horietan lan egiten dutenak gizartea hobetu nahi duten pertsona solidarioak izan ohi dira.	7,0	93,0	100	2,7
EKARPENA	Gizarteak oso gutxi baloratzen ditu erakunde horiek.	34,8	65,2	100	3,2
EKARPENA	Erakunde horietako asko kideen etekinerako besterik ez dira sortzen eta ez dira haratago joaten (ez dute guztien ongia bilatzen).	64,5	35,5	100	6,5
EKARPENA	Erakunde horiek administrazio publikoek (gobernuek) egin beharreko lana egiten dute.	23,8	76,2	100	7,0
AUTONOMIA	Erakunde horietako askok alderdi politiko, talde erlijioso, enpresa eta abarren interesei erantzuten diete.	39,1	60,9	100	8,8
FINANTZIAZIOA	Erakunde gehienak funts publikoekin finantzatzen dira batez ere.	42,5	57,5	100	14,8%
KUDEAKETA-ERAGINKORTASUNA	Kontratatutako pertsonak dituzten erakundeek boluntarioak soilik dituztenek baino hobeto funtzionatzen dute.	68,9	31,1	100	27,7
KUDEAKETA-ERAGINKORTASUNA	Erakunde horiek diru gutxirekin hobekuntzak lortzen dituzte.	30,3	69,7	100	9,2
KUDEAKETA-ERAGINKORTASUNA	Erakunde horiek enpresak bezain eraginkorrak dira.	44,6	55,4	100	15,5
JARDUERA /EGITURAKETA	la gauza bera egiten duten erakunde gehiegi daude.	29,9	70,1	100	13,7

Biztanleriaren artean gehien onartutako iritziaren arabera, *erakundeetan lan egiten dutenak gizartea hobetu nahi duten pertsona solidarioak dira*. Hamar lagunetik bederatzi baieztapen horrekin bat dator.

Horrez gain, erakundeetako ekarpen sozialarekin ere lotuta dauden beste iritzi batzuekin zerikusia duten emaitzak aztertzen badira, Hirugarren Sektorerean ekarpen sozialari buruzko ikuspegi nagusiki positiboa iragartzen da.

Hortaz, % 65,2k *gizarteak ez dituela sektoreko erakundeak behar adina baloratzen* pentsatzen du eta % 64,5en ustetan, *erakunde horietako asko ez dira kideen onurarako soilik sortzen*, baizik eta haratago doaz eta *guztien onura bilatzen dute*.

Erakundeak eraginkorrak direla pentsatzen dute nagusiki, baita enpresekin alderatuta ere, eta baita soldatapeko langileak nahiz boluntarioak soilik dituzten erakundeak badira ere.

Hori horrela, hamar lagunetik hiruk soilik pentsatzen du *kontratatutako pertsonak dituzten erakundeek boluntarioak soilik dituztenek baino hobeto funtzionatzen dutela*<sup>48</sup>. Kontsultatutako hamar lagunetik ia zazpiren ustetan, sektoreko erakundeek *hobekuntzak lortzen dituzte diru gutxirekin*.

Hala eta guztiz ere, komeni da kontsultatutako % 44,6k sektoreko *erakundeak ez direla enpresak bezain eraginkorrak* pentsatzen duela kontuan izatea.

**Nagusiki izaera solidarioa egotzen zaio sektoreari eta gizartea hobetzeko xedea eta, oro har, horren kudeaketari buruzko ikuspegia positiboa da**

<sup>48</sup> Gai horri buruzko iritzia ematerakoan erantzun gabekoen ehunekoa nahiko altua denez, datuak arreta handiagoarekin hartu behar dira. Erantzun gabekoak % 27,7ra heltzen dira.

Bestalde, *erakunde horiek administrazio publikoek egin beharreko lana egiten dutela* defendatzen duen ideiareen onespren maila esanguratsua erregistratu da. Galdetutako lau lagunetik hiruk hala pentsatzen du.

Erakundeek eskainitako jarduerak edo zerbitzuak zuzenean administrazio publikoek kudeatu beharrekoak direla pentsatzea erantzun horretatik ondorioztatzea ez dagokion arren, argi dago administrazio publikoek erakundeen eginkizunaren gaineko erantzukizun motaren bat dutela eta izan behar dutela pentsatzen dutela eta bereziki arauetan definitutako zerbitzuei dagokienean, erantzukizun publikoko zerbitzuak eta erakundeetako interes orokorreko beste jarduera batzuk, kasu.<sup>49</sup>

Bestalde, sektoreko erakundeei egotzitako autonomia maila ez dela oso altua baieztatu da. % 60 ingururen ustetan, *erakunde horietako askok alderdi politiko, talde erlijioso, enpresa eta abarren interesei erantzuten diete.*

Beste alde batetik, antzeko ehunekoaren (% 57,5) ustetan, *erakunde gehienak funts publikoekin finantzatzen dira batez ere*<sup>50</sup> eta baliteke bigarren iritzi horrek lehenengoa azaltzea, hein batean bada ere. Kontsultatutako herritarrek erakundeen autonomia zentzurik zabalenean ez baloratzea, baizik eta nagusiki independentzia ekonomikoaren aldetik egitea, alegia.

Pertzepzio hori estatu mailako azterketek ere adierazi dute, *Ekonomia Soziala Espainian*<sup>51</sup> azterketak kasu; horrek % 53an finkatu zuen Hirugarren Sektoreko erakundeak funtzionamendurako funts publikoen mende-koak direla uste duen biztanleriaren proportzioa.

Ildo horretatik, *2010eko Bizkaiko Hirugarren Sektoreko Urtekarian*<sup>52</sup> argitaratutako azken datuek jasotakoaren eta errealitatearen artean nolabaiteko distantzia dagoela adierazten dutela azpimarratu behar da.

Datu horien arabera, finantziario pribatua sektoreko finantziario guztiaren % 55,8koa da. 4 erakundetik 3k beren eginkizunaren garapenerako finantziario publikoa jasotzen duten arren, kasu gehienetan (erakunde horien % 59,4tan) ez da pisu gehien duen iturria eta, beraz, izaera pribatuko beste diru-sarrera batzuekin konbinatzen da, hau da, partikularren dohaintza erregularrak eta abar.

Azkenik, datuek adierazten dutenez, Bizkaiko biztanleriak sektorearen atomizazio edo zatiketa ikuspegia du eta badirudi horren aurrean nahiko kritiko azaltzen dela eta, beraz, kontsultatutakoaren % 70 honela dioen baieztapenarekin nahiko edo oso ados agertu da: *ia gauza bera egiten duten erakunde gehiegi daude.*

### ***Pertzepzioa pertsonen profilaran arabera***

Badirudi pertsonen profilak (sexua, adina, jaioterria, heziketa maila eta abar) nolabaiteko lotura duela aztertutako zenbait iritzirekiko adostasun maila handiagoarekin edo txikiagoarekin.

49 Gainerakoan, argi dago arauetan erantzukizun publikoko zerbitzu gisa definitutako zerbitzuei dagokienez erantzukizun maila ez dela bera izango eta administrazioek erakundeen gainerako jarduerari dagokienez erakundeekin adostea, hitzartzea edo kontratatzea.

50 Gai horri buruzko iritzia ematerakoan erantzun gabekoen ehunekoa nahiko altua denez, datuak arreta handiagoarekin hartu behar dira. Erantzun gabekoak % 14,8ra heltzen dira.

51 Op.cit.

52 Op.cit.

Hortaz, honako hau ondorioztatu daiteke:

- Heziketa maila baxuko eta erretiratutako pertsonak dira, neurri handian, *erakundeak gizartean oso gutxi baloratzen direla* uste dutenak.
- Emakumeen, heziketa maila baxuko pertsonen eta biztanleria ez-aktiboaren (erretiratuak, etxeko lanak egiten dituztenak eta ikasleak) artean dago bereziki zabaldua erakundeek *administrazio publikoek egin behar luketen lana egiten dutela*.
- Pertsona ez-aktiboak dira sektoreko erakundeek *hobekuntzak diru gutxirekin lortzearen* inguruan adostasun maila handiena azaltzen dutenak.
- Emakumeak, heziketa maila baxuko pertsonak eta etxeko lanak egiten dituztenak dira erakunde horiek *enpresak bezain eraginkorrak direla* uste dutenak.
- Neurri handiengan gizezkoak, 50 urtetik gorakoak, heziketa maila baxuko pertsonak eta ez-aktiboak dira sektorearen atomizazio-pertzepzioa dutenak, hau da, *ia gauza bera egiten duten erakunde gehiegi daudela pentsatzen dutenak*.

9. TAULA: HIRUGARREN SEKTOREARI BURUZKO HAINBAT IRITZIREN ONESPENA.  
ALDAGAI SOZIODEMOGRAFIKO ESANGURATSUAK

IRITZIAK		...mitoa edo iritzia nork partekatzen duen neurri handiagoan... <sup>53</sup>
EKARPENA	Erakunde horietan lan egiten dutenak gizartea hobetu nahi duten pertsona solidarioak izan ohi dira.	<i>Ez da alde esanguratsurik detektatu</i>
EKARPENA	Gizarteak oso gutxi baloratzen ditu erakunde horiek.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Heziketa maila baxua duten pertsonak</li> <li>• Erretiratuak edo ez-aktibo daudenak</li> </ul>
EKARPENA	Erakunde horietako asko kideen etekinerako besterik ez dira sortzen eta ez dira haratago joaten (ez dute guztien ongia bilatzen).	<i>Ez da alde esanguratsurik detektatu</i>
EKARPENA	Erakunde horiek administrazio publikoek (gobernuek) egin beharreko lana egiten dute.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Emakumezkoak</li> <li>• Heziketa maila baxua duten pertsonak</li> <li>• Erretiratuak, etxeko lanak egiten dituztenak eta ikasleak</li> </ul>
AUTONOMIA	Erakunde horietako askok alderdi politiko, talde erlijioso, enpresa eta abarren interesei erantzuten diete.	<i>Ez da alde esanguratsurik detektatu</i>
FINANTZIAZIOA	Erakunde gehienak funts publikoekin finantzatzen dira batez ere.	<i>Ez da alde esanguratsurik detektatu</i>
KUDEAKETA-ERAGINKORTASUNA	Kontratututako pertsonak dituzten erakundeek boluntarioak soilik dituztenek baino hobeto funtzionatzen dute.	<i>Ez da alde esanguratsurik detektatu</i>
KUDEAKETA-ERAGINKORTASUNA	Erakunde horiek enpresak bezain eraginkorrak dira.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Emakumezkoak</li> <li>• Heziketa maila baxua duten pertsonak</li> <li>• Etxeko lanak egiten dituztenak edo ez-aktibo daudenak</li> </ul>
KUDEAKETA-ERAGINKORTASUNA	Erakunde horiek diru gutxirekin hobekuntzak lortzen dituzte.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Erretiratuak, etxeko lanak egiten dituztenak eta ez-aktibo daudenak</li> </ul>
JARDUERA-EGITARAKETA	la gauza bera egiten duten erakunde gehiegi daude.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Gizezkoak</li> <li>• 50 urtetik gorakoak</li> <li>• Heziketa maila baxua duten pertsonak</li> <li>• Erretiratuak, etxeko lanak egiten dituztenak eta ez-aktibo daudenak</li> </ul>

Analisian gehiago sakontzeko, iritzien eta egun edo iraganean erakunderen batekin zuzeneko harremana izatearen arteko lotura ezagutzea bilatu da.



Oro har, sektoretik “hurbilago” egoteak haren gaineko pertzepzioan nolabait positiboki eragiten duela erakusten dute emaitzek.

**Erakundeekin zuzeneko lotura dutenek edo izan dutenek (egun edo iraganean) erakundeen autonomia edo independentzia, guztien ongizaterako duten orientazioa eta eraginkortasuna neurri handiagoan baieztatzean** daude alde esanguratsuenak.

1o. TAULA: HIRUGARREN SEKTOREKO ERAKUNDEEI BURUZKO IRITZIAKI  
EMAITZA OROKORRAK ETA ZUZENENKO LOTURA EGOTEAREN ARABERAKOAK. %<sup>54</sup>

		Biztanleria GUZTIRA	Zuzeneko lotura DAGO	EZ DAGO zuzeneko loturarik	
EKARPENEA	Erakunde horietan lan egiten dutenak gizartea hobetu nahi duten pertsona solidarioak izan ohi dira	Erabat desados edo adostasun gutxi	7	5,9	10,1
		Nahiko ados edo erabat ados	93	94,1	89,9
		Guztira	100,0	100,0	100,0
	<b>Gizarteak oso gutxi baloratzen ditu erakunde horiek</b>	Erabat desados edo adostasun gutxi	<b>34,8</b>	<b>37,3</b>	<b>28,1</b>
		Nahiko ados edo erabat ados	<b>65,2</b>	<b>62,7</b>	<b>71,9</b>
		Guztira	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
	Erakunde horietako asko kideen etekinerako besterik ez dira sortzen eta ez dira haratago joaten (ez dute guztien ongia bilatzen)	Erabat desados edo adostasun gutxi	64,5	67,3	57,1
		Nahiko ados edo erabat ados	35,5	32,7	42,9
		Guztira	100,0	100,0	100,0
	Erakunde horiek administrazio publikoek (gobernuek) egin beharreko lana egiten dute	Erabat desados edo adostasun gutxi	23,8	26,6	16,9
		Nahiko ados edo erabat ados	76,2	73,4	83,1
		Guztira	100,0	100,0	100,0
AUTO-NOMIA	Erakunde horietako askok alderdi politiko, talde erlijioso, enpresa eta abarren interesei erantzuten diete.	Erabat desados edo adostasun gutxi	<b>39,1</b>	<b>41,9</b>	<b>31,8</b>
		Nahiko ados edo erabat ados	<b>60,9</b>	<b>58,1</b>	<b>68,2</b>
		Guztira	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
FINAN-TZIAZIOA	Erakunde gehienak funts publikoekin finantzatzen dira batez ere	Erabat desados edo adostasun gutxi	<b>42,5</b>	<b>46,1</b>	<b>32,6</b>
		Nahiko ados edo erabat ados	<b>57,5</b>	<b>53,9</b>	<b>67,4</b>
		Guztira	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
KUDEAKETA-ERAGINKORTASUNA	Kontrataturako pertsonak dituzten erakundeek boluntarioak soilik dituztenek baino hobeto funtzionatzen dute	Erabat desados edo adostasun gutxi	68,9	71,3	63,0
		Nahiko ados edo erabat ados	31,1	28,7	37,0
		Guztira	100,0	100,0	100,0
	Erakunde horiek diru gutxirekin hobekuntzak lortzen dituzte	Erabat desados edo adostasun gutxi	30,3	29,1	33,3
		Nahiko ados edo erabat ados	69,7	70,9	66,7
		Guztira	100,0	100,0	100,0
	Erakunde horiek enpresak bezain eraginkorrak dira	Nada o poco de acuerdo	<b>44,6</b>	41,7	52,6
		Nahiko ados edo erabat ados	<b>55,4</b>	58,3	47,4
		Guztira	<b>100,0</b>	100,0	100,0
JARDUERA EGITURAKETA	Ia gauza bera egiten duten erakunde gehiegi daude	Erabat desados edo adostasun gutxi	29,9	30,1	29,4
		Nahiko ados edo erabat ados	70,1	69,9	70,6
		Guztira	100,0	100,0	100,0

Oharra: azaldutako aldagaien arteko gurutzaketan aldeak estatistikoki esanguratsuak direla adierazten dute lauki gorriek ( $X^2 < 0,05$ ).

Bestalde, erakundeekin lotura duten pertsonen artean ere aldeak nabarmentzen dira, lotura motaren arabera, horrela, **ekonomikoki laguntzen duten kideen edo ohiko erabiltzaileak diren kolektiboen pertzepzioa besteena baino nabarmen positiboagoa da.**

**Sektoretik “hurbilago” egoteak haren gaineko pertzepzioan nolabait positiboki eragiten du.**

Hori horrela, erakundeetako kideak edo ohiko erabiltzaileak direnen artean, *erakundeek alderdi politikoaren, talde erlijiosoen, enpresen eta abarren interesei erantzuten dietela* gainerako kasuetan baino gutxiago irizten dute. Bi kolektibo horiek dira *erakundeen eraginkortasunean* konfiantza gehien dutenak ere.

**Kideen eta erabiltzaileen ikuspegia bereziki positiboa da.**

Datuen irakurketa bikoitza eginda, zuzeneko lotura dutenetako batzuk kritikotzat har daitekeen erakundeekiko ikuspegia dutela adierazten duten zenbait ehunekori buruzko hausnarketa egitea ere komenigarria izango litzateke. Hori horrela, zuzeneko lotura dutenen artean kontuan hartu behar da:

- % 58,1 nahiko edo erabat ados azaltzen da *erakunde horietako askok beste eragile batzuen interesei erantzuten dietela* dioten ideiarekin;
- % 41,7ren arabera, *erakunde horiek ez dira enpresak bezain eraginkorrak*;
- % 32,7 nahiko ados dago *erakunde horietako asko bazkideen etekin esklusiborako sortzen direla eta ez direla haratago joaten* dioten ideiarekin.

11. TAULA: HIRUGARREN SEKTOREKO ERAKUNDEEI BURUZKO IRITZIAK EMAITZA OROKORRAK ETA LOTURA MAILAREN ARABERAKOAK. Nahiko ados edo erabat ados. %

	Biztanleria, oro har	Zuzeneko lotura duten pertsonak (egungoa edo iraganekoa)	Noizbehinkako erabiltzailea	Ohiko erabiltzailea	Kidea eta ekarpen ekonomikoa egiten du	Ez da kidea, baina ekonomikoki laguntzen du	Boluntarioa	Erakunde bateko soldatapeko langilea*
Erakunde horiek administrazio publikoek (gobernuek) egin beharreko lana egiten dute.	76,2	73,4	78,3	84,1	73,2	75,0	75,0	50,0
Erakunde horietako askok alderdi politiko, talde erlijioso, enpresa eta abarren interesei erantzuten diete.	60,9	58,1	53,5	41,9	50,9	60,7	55,7	25,0
Erakunde gehienak funts publikoekin finantzatzen dira batez ere.	57,5	53,9	59,0	47,7	50,3	52,8	55,9	50,0
Erakunde horiek enpresak bezain eraginkorrak dira.	55,4	58,3	53,2	60,5	63,8	56,5	54,5	100,0
<i>N</i>	600	432	91	46	170	190	64	4

Oharra: soldatapeko langileei buruzko datuak arretaz aztertu behar dira, lagina osatzen duen soldatapekoen kopurua txikia delako.

## 7. HIRUGARREN SEKTOREKO ERAKUNDEEN LANAREN ETA EKARPEN SOZIALAREN BALORAZIOA

Nola baloratzen du biztanleriak Hirugarren Sektoroko erakundeek egiten duten lana? Egiten duten ekarpen sozialaren zer ebaluazio egiten du?

Aurreko ataletan biztanleriak sektoreko erakundeekiko duen posizionamendua ondorioztatzen joan ahal izan da, hari lotutako ideietatik ondorioztatzen den konnotazioaren bidez, iritzi zehatzekiko adostasun mailaren bidez eta abar.

Atal honetan biztanleriak baldintza hauei dagokienez espezifikoki egiten duen ebaluazioari eskainiko diogu arreta: konfiantza, ekarpen soziala, gardentasuna, erakundeen inpaktua eta abar.

### *...egiten duten lana eta haienganako konfiantza*

Aztertutako sei eragileen artetik –administrazio publikoa, eliza, Hirugarren Sektoroko erakundeak, enpresak, sindikatuak eta alderdi politikoak– **Hirugarren Sektoroko erakundeak izan dira ondoen baloratutakoak, bikainaren pareko batez besteko puntuazioarekin** (10etik 6,73 puntu).

Horien atzetik administrazio publikoak (5,38 puntu) eta enpresak (5,10 puntu) daude, nahiko eskasarekin. Gainerako eragileek ez dute 5 puntuko puntuazioa gainditu.

***Hirugarren Sektoroko erakundeak gainerako eragile sozialek (administrazioa, alderdi politikoak eta abar) baino balorazio hobea dute, bai egiten duten lanari dagokionez, bai eskaintzen duten konfiantzari dagokionez.***

Batez bestekotik haratago, beste estatistika batzuei erantzunda, Hirugarren Sektoroko erakundeek egindako lana puntuatzerakoan gehien errepikatutako balioa 7 izan dela egiaztatu daiteke.

12. TAULA: HAINBAT ERAGILE SOZIALEK EGITEN DUTEN LANAREN BALORAZIOA. OINARRIZKO ESTADISTIKAK.

LANAREN BALORAZIOA 0 ETA 10 ARTEKO ESKALAN	Hirugarren Sektoroko erakundeak	Admin. publikoak	Enpresak	Eliza	Sindikatuak	Alderdi politikoak
Batez bestekoa	6,73	5,38	5,10	4,47	3,52	2,49
Mediana <sup>55</sup>	7,00	6,00	5,00	5,00	4,00	2,00
Moda <sup>56</sup>	7	5	5	5	0	0
Desbideratze tipikoa <sup>57</sup>	1,791	2,175	2,097	2,811	2,539	2,252
Minimoa	0	0	0	0	0	0
Maximoa	10	10	10	10	10	10
N	577	574	512	569	547	564
Erantzun gabekoak %	3,83	4,33	14,67	5,17	8,83	6,00

Lan honetan jasotako datuek antzekotasuna dute 2007ko CISEko barometroak Estatu mailan erregistratutakoekin. Datu haien arabera, Hirugarren Sektoroko erakundeek komunikabideek, sindikatuek eta alderdi politikoek baino balorazio hobea zuten, 10etik 6 punturekin.

<sup>55</sup> Mediana ordenatutako datu multzoan erdiko lekua hartzen duen balioa da.

<sup>56</sup> Moda gehien errepikatuko balioa adierazten du.

<sup>57</sup> Desbideratze tipikoak bildutako datuen aldakortasunaren edo sakabanatzearen berri ematen du eta datuek batez besteko aritmetikoarekiko duten distantziaren batez besteko gisa definitzen da.

Hirugarren Sektorea kontsultatutako pertsonaren sexua, adina, lan-egoera eta bestelako ezaugarri soziodemografikoak albo batera utzita, kasu guztietan ondoen baloratutako eragilea da.

Hala eta guztiz ere, beren puntuazioek batez besteko orokorra gainditzen dutelako, erakundeek egiten duten lana ondoen baloratzen dutenak, honako hauek dira: emakumeak, adin gehieneko pertsonak adin gutxienekoekin batera, heziketa mailarik baxuenekoak, ez-aktibo daudenak –bereziki ordaindu gabeko etxeko lanak egiten dituztenak–, hiriburuan bizi den biztanleria eta katolikoak direnak.

13. TAULA: HAINBAT ERAGILE SOZIALEK EGITEN DUTEN LANAREN BALORAZIOA. SEXU, ADIN, HEZIKETA MAILA, LAN EGOERA, JAIOTERRI, BIZITOKIAREN TAMAINA, SINISMEN ERLIJIOSO ETA POSIZIONAMENDU IDEOLOGIKOEN ARABERAKO BATEZ BESTEKOAK.

LANAREN BALORAZIOA o ETA 1o ARTEKO ESKALAN.		H. S-eko erakundeak	Adm. publikoak	Enpresak	Eliza	Sindikatuak	Alderdiak
Sexua	Emakumezkoa	<b>6,98</b>	5,45	5,40	4,75	3,74	2,64
	Gizonezkoa	6,46	5,31	4,83	4,17	3,32	2,35
		(*)		(*)	(*)		
Adina	18tik 29 urte arte	6,96	5,45	5,73	3,87	5,01	3,07
	30etik 39 urte arte	6,58	5,34	5,07	3,61	3,95	2,28
	40tik 49 urte arte	6,52	5,16	4,75	4,13	3,41	2,28
	50etik 64 urte arte	6,49	5,19	4,93	4,70	3,40	2,68
	65 urte edo gehiago	<b>7,13</b>	5,75	5,18	5,64	2,27	2,28
	(*)		(*)	(*)	(*)	(*)	
Hezkuntza maila	Ikasketarik ez	7,00	5,31	4,43	5,47	2,00	1,92
	Lehen mailako ikasketak	<b>7,05</b>	5,52	5,02	5,14	2,76	2,27
	Bigarren mailako ikasketak	6,71	5,47	5,21	4,30	3,92	2,66
	Erdi edo Goi mailako lanbide heziketa	6,48	4,99	4,78	3,54	3,16	1,85
	Goi mailako ikasketa ertainak eta goi mailakoak	6,68	5,50	5,31	4,67	4,04	2,98
				(*)	(*)	(*)	
Lan-egoera	Lanean	6,51	5,29	5,08	4,02	3,64	2,42
	Langabetuta	6,52	5,27	4,90	3,91	3,95	2,45
	Erretiratuta	6,92	5,47	5,00	5,41	2,63	2,43
	Etxeko lanak	<b>7,49</b>	5,83	5,31	5,20	3,16	2,54
	Ikaslea	7,06	5,47	6,12	4,15	5,30	3,51
	(*)		(*)	(*)	(*)		
Jaioterrria	EAE	6,68	5,30	5,01	4,11	3,68	2,43
	Beste komunitate autonomo bat	6,79	5,31	5,16	5,42	2,46	2,36
	Atzerriarra	<b>7,52</b>	7,25	6,79	6,41	5,13	4,45
			(*)	(*)	(*)	(*)	(*)
Bizitokia den herriaren tamaina	10.000 biztanle arte	6,77	5,34	4,77	4,10	3,58	2,63
	10.001 -120.000 biztanle	6,66	5,22	5,20	4,14	3,68	2,43
	Hiriburua	<b>6,83</b>	5,66	5,13	5,21	3,24	2,51
				(*)			
Sinesmen erlijiosoak	Katolikoa (praktikatzailea edo ez)	<b>6,81</b>	5,38	5,14	5,24	3,34	2,50
	Agnostiko-atekoa	6,72	5,20	4,96	2,74	4,12	2,49
	Beste batzuk	6,41	5,64	5,12	3,41	3,55	2,61
					(*)	(*)	
Kokapen ideologikoa	Ezkerra	6,79	5,49	4,99	3,44	4,08	2,49
	Zentroa	6,61	5,32	5,25	4,72	3,43	2,74
	Eskuina	<b>7,78</b>	5,91	5,82	6,42	3,63	2,57
				(*)	(*)		

Oharra: azaldutako aldagaien arteko gurutzaketan aldeak estatistikoki esanguratsuak direla adierazten du (\*)ak ( $F < 0,05$ ).  
 2. oharra: letra lodiz adierazitako datuek aldagai independente bakoitzeko puntuaziorik altuena adierazten dute.  
 3. oharra: *posizionamendu ideologikoa* eta *jaioterra* aldagaien datuak arretaz jorratu behar dira, zenbait kategoriaren lagina txikia delako.

Bizkaiko biztanleriak eragile sozialen aurrean duen *konfiantza mailaren* analisiak, eragileek egiten duten lana baloratzean erregistratutako joera bera islatzen du.

**Hirugarren Sektoreko erakundeak dira konfiantza gehien eskaintzen dutenak** (6,27 puntu), administrazio publikoek (4,88 puntu) eta enpresek (4,77 puntu) jarraituta. Alderdi politikoak eta sindikatuak atzean kokatzen dira berriro ere.

Ikus daitekeen moduan, eragile sozial guztien lanaren balorazioa, sortzen duten konfiantza maila baino kota altuagoetara heltzen da.

Galdetutako pertsonen profilaren arabera bereizitako datuek ere ez dute aldaketa handirik erakusten aurreko atalean adierazitako joerari dagokionez<sup>58</sup>.

14. TAULA: HAINBAT ERAGILE SOZIALENGANAKO KONFIANTZA MAILA. OINARRIZKO ESTADISTIKAK.

KONFIANTZA MAILA 0 ETA 10 ARTEKO ESKALAN	HS-eko erakundeak	Admin. publikoak	Enpresak	Eliza	Sindikatuak	Alderdiak
Batez bestekoa	6,27	4,88	4,77	3,75	3,25	2,29
Mediana	6,00	5,00	5,00	4,00	4,00	2,00
Moda	7	5	5	0	0	0
Desbideratze tipikoa	1,950	2,520	2,096	3,003	2,493	2,215
Minimoa	0	0	0	0	0	0
Maximoa	10	10	10	10	10	10
<i>N</i>	586	587	525	585	558	566
<i>Erantzun gabekoen %</i>	2,33	2,17	12,50	2,50	7,00	5,67


### ...baliabide ekonomikoen erabilera

Aurreko ataletan, biztanleriaren artean sektoreko erakundeen kudeaketari buruz dauden zenbait iritziri buruzko informazioa jaso da.

Adierazitako moduan, ikuspegi positiboa da, oro har.

9. GRAFIKOA: BALIABIDE EKONOMIKOEN ERABILERA ZUZEN ETA ERAGINKORRARI BURUZKO BALORAZIOA. EMAITZA OROKORRAK. %

- Nagusiki bai, erakunde horietako gehienek kudeaketa ona dutela uste dut
- Ez, erakunde gehienek ez dutela kudeaketa egokia egiten uste dut
- Batzuk bai, baina beste batzuk ez, ildo horretan ezin daitekeela orokortu uste dut. Kasu bakoitzaren arabera.



Oharra: galdera horretan erantzun gabekoen ehunekoa % 10,5koa da.

<sup>58</sup> Aldagai independenteen araberako taula eranskinetan kontsultatu daiteke.

**Pertsonen % 57,4k erakundeek baliabide ekonomikoen erabilera ona egiten dutela uste du.**

Baliabide ekonomikoen erabilerari buruz zehazten saiatzerakoan, kontsultatutako biztanleriaren erdiak baino gehiagok (% 57,4k) erakunde horiek nagusiki baliabide ekonomikoen erabilera zuzena eta eraginkorra egiten dutela uste duela egiaztatuta ahal izan da.

% 23,5en arabera, hori ezin orokortu daiteke eta dagokion erakundearen mende egongo da. % 19,2k soilik uste du erakunde gehienek ez dutela kudeaketa egokia egiten.

Erakundeekin zuzeneko lotura duten edo izan duten pertsonen hobeto baloratzen dute horiek baliabide ekonomikoez egiten duten erabilera. Hori horrela, horien artetik % 60,9ren ustetan eta erakundeekin zuzeneko loturarik ez dutenen % 47,6ren ustetan, erakundeek baliabide ekonomikoen erabilera zuzena eta eraginkorra egiten dute.

Aurkako muturrean, sektorearekin nolabaiteko lotura izanda edo eduki izanik erakundeek baliabide ekonomikoez egiten duten erabilera kritikatzeko dutenak % 16 dira eta loturarik ez dutenen artean % 28.

15. TAULA: BALIABIDE EKONOMIKOEN ERABILERA ZUZEN ETA ERAGINKORRARI BURUZKO BALORAZIOA. EMAITZA OROKORRAK ETA ZUZENeko LOTURA EGOTEAREN ARABERAKOAK (egungoa edo iraganekoa). %

Baliabide ekonomikoen kudeaketaren eta erabileraren balorazioa (*)	Guztira	Zuzeneko lotura DAGO	EZ DAGO zuzeneko loturarik
Nagusiki bai, erakunde horietako gehienek kudeaketa ona dutela uste du.	57,4	60,9	47,6
Ez, erakunde gehienek ez dutela kudeaketa egokia egiten uste du.	19,2	16,0	28,0
Batzuk bai, baina beste batzuk ez, ildo horretan ezin daitekeela orokortu uste du. Kasu bakoitzaren arabera.	23,5	23,1	24,5
Guztira	100	100	100

Oharra: azaldutako aldagaien arteko gurutzaketan aldeak estatistikoki esanguratsuak direla adierazten du (\*)ak ( $\chi^2 < 0,05$ ).


**... gardentasuna**

Hirugarren Sektoreko erakundeen *gardentasunari* dagokionez, kudeaketa ekonomikoarekin lotuta biztanleria banatuago azaldu da.

Kontsultatutako hamar lagunetik ia lauren arabera, erakunde gehienak gardenak dira beren kudeaketa ekonomikoari buruzko informazioarekin.

10. GRAFIKOA: KUDEAKETA EKONOMIKOARI BURUZKO INFORMAZIOAN GARDENTASUNAREN BALORAZIOA. EMAITZA OROKORRAK %

- Nagusiki bai, erakunde horietako gehienek kudeaketa ona dutela uste du.
- Ez, erakunde gehienek ez dutela kudeaketa egokia egiten uste du.
- Batzuk bai, baina beste batzuk ez, ildo horretan ezin daitekeela orokortu uste du. Kasu bakoitzaren arabera.



Oharra: galdera horretan erantzun gabekoen ehunekoa % 11,5ekoa da.

Hala eta guztiz ere, % 37,5ek kontrakoa pentsatzen du eta % 23ren arabera ezin da orokortu, dagokion erakundearen arabera delako.

Kasu horretan ez da alde nabarmenik antzematen kontsultatutako pertsonen profilarren arabera.

### **...ekarpen soziala**

Biztanleriak Hirugarren Sektoreko erakundeek ekarpen sozialarekin duen loturari dagokionez duen pertzepzioa aztertzeko ekarpenarekin lotutako hainbat alderdi hartu dira kontuan: eraldaketa eta aldaketa soziala; partaidetza soziala; balioen sentsibilizazioa eta transmisioa; pertsonen bizi-kalitatearen hobekuntza; gatazka sozialen ebazpena eta eragile sozialei egindako presioa edo *lobby-a*.

**Hirugarren Sektoreak aldaketa eta hobekuntza sozialarekin lotuta egindako ekarpena aitortzen da, oro har.**

**Hala ere, erakundeek gaitasun kritikoa eta presioa egiteko gaitasuna ikustaraztea kostatzen da.**

Badirudi *pertsonen bizi-kalitatearen hobekuntza* eta *balioen sentsibilizazio- eta transmisio-lana* direla herritarrek gehien ikusten dituzten ekarpenak.

Hortaz, hamar lagunetik zortzik inguruk erakundeek horretan dezentze edo asko laguntzen dutela pentsatzen du.

Horrez gain, hamar lagunetik zazpi inguru nahiko edo erabat ados agertzen da erakundeek *eraldaketa eta aldaketa sozialean laguntzen dutela*, sistema demokratikoagoa eginez *partaidetza soziala* ahalbidetzen dutela eta *administrazio publikoak konpontzeko gai ez diren arazoak konpontzeko gai direla* dioten ideiarekin.

Bestalde, Hirugarren Sektoreko erakundeek administrazio publikoekiko, parlamentuekiko, alderdi politikoekeko eta abarrekeko duten *gaitasun kritikoa eta presioa egiteko gaitasuna* ez du neurri berean jasotzen biztanleriak. Hain zuzen ere, % 36,3 soilik azaltzen da nahiko edo erabat ados erakundeek gaitasun hori dutela dioten ideiarekin.

16. TAULA: EKARPEN SOZIALARI BURUZKO BALORAZIOA. EMAITZA OROKORRAK. %

ERAKUNDEEN EKARPENARI BURUZKO BALORAZIOA	Erabat desados edo adostasun gutxi	Nahiko ados edo erabat ados	Erantzun gabeko %
...eraldaketa eta aldaketa sozialean laguntzen dute (mundu hobea, bidezkoagoa, gizartearen hobekuntza...).	31,5	68,5	2,5
...partaidetza soziala eta sistema demokratikoagoa izatea ahalbidetzen dute.	31,6	68,4	7,2
...gizartea sentsibilizatzeko eta balioak (elkartasuna, lankidetzeta, hezkuntza eta abar) transmititzeko lana garatzen dute.	18,5	81,5	3,7
...pertsonen bizi-kalitatea hobetzen laguntzen dute.	17,4	82,6	4,0
...gaitasun kritikoa eta administrazio publikoak, parlamentuak, alderdi politikoak eta abar presionatzeko gaitasuna dute.	63,7	36,3	11,5
...administrazio publikoak (gobernuak) konpontzeko gai ez diren arazoak konpontzen dituzte.	31,0	69,0	9,2



Pertsonen profilari jarraiki, honako hau aipatu beharra dago:<sup>59</sup>

- emakumeek neurri handiagoan identifikatzen dituzte *erakundeen gaitasun kritikoa eta presio-gaitasuna* (% 40,8 nahiko edo erabat ados dago eta gizonezkoen % 32,1ek gauza bera pentsatzen du);
- gazteenak eta 50 urtetik gorakoak dira erakundeek *administrazio publikoak konpontzeko gai ez diren arazoak konpontzen dituztela* dioen ideiarekin neurri handiagoan ados azaltzen direnak<sup>60</sup>.

Berriro ere sektorearekiko lotura hurbilak balorazioan aldaketa esanguratsuak ekartzen ote dituen egiaztatu nahi izan da. Hain zuzen ere, erakundeekin zuzeneko lotura izatea (egun edo iraganean) badirudi sektoreak duen ekarpen sozialaren pertzepzioarekin lotutako aldagaia dela.

Hori horrela, egun edo iraganean zuzeneko lotura izandako pertsonak dira (boluntarioak, kideak, erakunderen bateko ohiko edo noizean behingo erabiltzaileak direnak eta abar) erakundeek honako hauei egindako ekarpena gogoan dutenak:

- *eraldaketa eta aldaketa soziala* (% 71,9k uste du nahiko edo asko laguntzen dutela eta lotura hori ez dutenen % 59,6k pentsatzen du horrela);
- *balioen sentsibilizazio eta transmisio lana* (% 84, % 75ekin alderatuta);
- *pertsonen bizi-kalitatea hobetzen laguntzea* (% 86,6, % 72,2rekin alderatuta).

17. TAULA: EKARPEN SOZIALARI BURUZKO BALORAZIOA.  
EMAITZA OROKORRAK ETA ZUZENeko LOTURA EGOTEAREN ARABERAKOAK. %

		Biztanleria GUZTIRA	Zuzeneko lotura DAGO	EZ DAGO zuzeneko loturarik
...eraldaketa eta aldaketa sozialean laguntzen dute (mundu hobea, bidezkoagoa, gizartearen hobekuntza...)	<i>Erabat desados edo adostasun gutxi</i>	31,5	28,1	40,4
	<i>Nahiko ados edo erabat ados</i>	68,5	71,9	59,6
	<i>Guztira</i>	100,0	100,0	100,0
...partaidetza soziala eta sistema demokratikoagoa izatea ahalbidetzen dute	<i>Erabat desados edo adostasun gutxi</i>	31,6	30,3	34,8
	<i>Nahiko ados edo erabat ados</i>	68,4	69,7	65,2
	<i>Guztira</i>	100,0	100,0	100,0
...gizartea sentsibilizatzeko eta balioak (elkartasuna, lankidetzeta, hezkuntza eta abar) transmititzeko lana garatzen dute	<i>Erabat desados edo adostasun gutxi</i>	18,5	16,0	25,0
	<i>Nahiko ados edo erabat ados</i>	81,5	84,0	75,0
	<i>Guztira</i>	100,0	100,0	100,0
...pertsonen bizi-kalitatea hobetzen laguntzen dute	<i>Erabat desados edo adostasun gutxi</i>	17,4	13,4	27,8
	<i>Nahiko ados edo erabat ados</i>	82,6	86,6	72,2
	<i>Guztira</i>	100,0	100,0	100,0
...gaitasun kritikoa eta administrazio publikoak, parlamentuak, alderdi politikoak eta abar presionatzeko gaitasuna dute.	<i>Erabat desados edo adostasun gutxi</i>	63,7	62,4	66,9
	<i>Nahiko ados edo erabat ados</i>	36,3	37,6	33,1
	<i>Guztira</i>	100,0	100,0	100,0
...administrazio publikoak (gobernuak) konpontzeko gai ez diren arazoak konpontzen dituzte	<i>Erabat desados edo adostasun gutxi</i>	31	28,8	36,8
	<i>Nahiko ados edo erabat ados</i>	69	71,2	63,2
	<i>Guztira</i>	100,0	100,0	100,0

Oharra: azaldutako aldagaien arteko gurutzaketan aldeak estatistikoki esanguratsuak direla adierazten dute lauki gorriek ( $X^2 < 0,05$ ).

59 Azipmarragarria izan daiteke sozialekin lotutako lanbidea duten kontsultatutako pertsonen gainerakoek baino balorazio positiboagoa egitea (3. eranskinen 63 eta 65 arteko taulak ikusi). Hala ere, datuak arretaz jorratu behar dira, zenbait kategoriaren lagina txikia delako.

60 Sexuaren eta adinaren arabera gurutzaketan taulak eranskinetan kontsultatu daitezke.

## ...inpaktu ekonomiko positiboa

**Biztanleriaren % 48k  
soilik ikusten du  
erakundeen inpaktu  
ekonomiko positiboa**

Azkenik, Bizkaiko Hirugarren Sektorearen inpaktu ekonomiko positiboaren gaia jorratu dugu.

2010ean gai horri buruz *Bizkaiko Hirugarren Sektoreko Urtekarian*<sup>61</sup> argitaratutako azken zifretako batzuen arabera, Bizkaiko Hirugarren Sektorea 30.000 laguni lana ematen ariko litzateke eta 160.000 inguruk boluntario-lanak egingo lituzke sektorea osatzen duten erakundeen bitartez.


Horien guztien jarduerak 658 milioi euro mugitu ahal izan zituen 2009. urtean, hau da, urte horretako Bizkaiko BPGd-aren % 2,0.

Zifra horiek sektoreko inpaktu ekonomikoaren garrantziaren berri ematen duten arren, Bizkaiko biztanleriak ez duela baldintza horietan egiten duen ekarpena argi ikusten pentsatzera eramaten du kontsultaren emaitzak.

Hortaz, kontsultatutako biztanleriaren % 48,3ren arabera, erakundeek inpaktu ekonomiko positibo oso edo nahiko garrantzitsua dute.

% 51,7k, aldiz, kontrako iritzia azaltzen du.

11. GRAFIKOA: INPAKTU EKONOMIKO POSITIBOARI BURUZKO BALORAZIOA. EMAITZA OROKORRAK. %



Oharra: galdera horretan erantzun gabekoen ehunekoa % 16,2koa da.

Kasu horretan ere ez da alde nabarmenik atzeman ahal izan kontsultatutako pertsonen profilaren arabera.

## 8. HIRUGARREN SEKTOREKO ERAKUNDEEN ETORKIZUNA

*Hirugarren Sektoreko erakundeek beren jarduerarekin jarraitu behar dutela pentsatzen al du gizarteak?*

Kontsultatutako hamar lagunetik seik inguruk **oso garrantzi-tsutzat** hartzen du etorkizunean erakundeek, fundazioek eta GKE-ek garatzen ari diren lana egiten jarraitzea.

**Bizkaiko biztanleen % 92k erakundeek beren jarduerarekin jarraitzea oso edo nahiko garrantzitsua dela uste du.**

EHunekoak % 92 arte gora egiten du *nahiko garrantzitsua* dela uste dutenak kontatzen ditugunean. % 8k baino ez du pentsatzen horien jarraitasunak garrantzi gutxi edo batere garrantzirik ez duenik.

Bestalde, estatistikoki aldeak esanguratsuak diren aldeak daude sektoreko erakundeekin pertsonen duten lotura mailaren araberak.

18. TAULA: ERAKUNDEEK ETORKIZUNEAN BEREN JARDUERAREKIN JARRAITZEAK DUEN GARRANTZIA. EMAITZA OROKORRAK ETA ZUZENENKO LOTURA EGOTEAREN ARABERAKOAK. %

Etorkizunean beren jarduera garatzeak duen garrantzia	Guztira	Zuzeneko lotura DAGO	Loturaren bat DAGO	EZ DAGO loturarik
Oso edo nahiko garrantzitsua	92,3	95,3	93,8	84,1
Garrantzi gutxi edo batere garrantzirik ez	7,7	4,7	6,2	15,9
Guztira	100	100	100	100

Oharra: azaldutako aldagaien arteko gurutzaketan aldeak estatistikoki esanguratsuak direla adierazten du (\*)ak ( $X^2 < 0,05$ ).

Erakunderen batekin zuzeneko lotura duten edo izan duten pertsonen % 95ek (kideak direnak, bo-luntarioak, erabiltzaileak eta abar) etorkizunean beren jarduera garatzen jarraitzeak duen garrantzia azpimarratzen du.

EHunekoak % 93,8ra behera egiten du erakundeekin loturaren bat duten guztiak kontuan hartuz gero, nahiz eta lotura hori zeharkakoa izan (senideen, lagun... bitartez) eta horiekin inolako loturarik izan ez dutenak % 84,1 dira.

***Erakunde horiek administrazio publikoen laguntza handiagoa izan behar luketela uste al duzu?***

***Emakumezkoak, gazteak eta adinekoak dira laguntza publiko gehiagoren alde gehien egiten dutenak.***

**Hamar lagunetik ia bederatzik uste du erakunde horiek administrazio publikoen laguntza handiagoa jaso behar luketela** eta hori erakundeen independentzia eta autonomiari dagozkion iriziek alderatzen da, neurri batean.

Emakumezkoak dira ideia horrekin adostasun handiena azaltzen dutenak (gizonezkoen % 16,3k uste du ez luketela laguntza gehiago jaso behar eta emakumeen artean % 8,4 da laguntza publikoen aurka dagoena). Adinaren arabera, batez ere biztanle gazteenak dira, adin gehienekoez jarraituta, erakundeek administrazio publikoen laguntza handiagoa jasotzeko duten beharra gehien defendatzen dutenak (18 eta 29 urte arteko gazteen % 2,4k soilik eta 65 urte edo gehiagokoen % 8,3k uste du ez luketela laguntza gehiago jaso behar).

Erakundeek ez luketela laguntza publiko handiagoa jaso behar uste dutenek (galdetutakoen % 12) hainbat arrazoi aipatzen dituzte:<sup>62</sup>

- Erakundeek beren independentzia gordetzea garrantzitsua izatearen ustea (aipamenen % 57,7) nagusitzen da, administrazio publikoetatik aldentuta mantendu eta herritarren borondatezko ekarpenarekin, dohaintzekin eta abar funtzionatzen jarraitzekoa.
- Aipamenen % 15,4k dio ez luketela laguntza gehiago jaso behar, administrazio publikoek egin behar bailukete erakundeek egiten duten lana eta horiek estaltzen dituzten beharrak erantzun behar bailituzkete.
